

Jarduteko barne-protokoloa, haurrak arrisku egoeran edo babesgabezia egoeran daudenerako

**Gizarte Ekintza Saila
Pasaiaiko Udala**

**ARRISKU EGOERAN ETA/EDO BABES GABEZIA
EGOERAN DAUDEN HAURRAK ETA NERABEAK
ARTATZEKO PROGRAMA**

***ARRISKU EGOERAN ETA/EDO BABES GABEZIA
EGOERAN DAUDEN HAURRAK ETA NERABEAK
ARTATZEKO BARNEKO ESKULIBURUA***

Pasaian, 2013ko urria

Jarduteko barne-protokoloa, haurrak arrisku egoeran edo babesgabezia egoeran daudenerako

AURKIBIDEA

1. SARRERA	Or. 3
2. HELBURUAK	Or. 7
3. MARKO JURIDIKOA	Or. 8
4. ARRISKU EGOERAN ETA/EDO BABES GABEZIA EGOERAN DAUDEN HAURRAK ARTATZEKO PROGRAMA	Or. 12
4.1. Aurrekariak	Or. 12
4.2. Eskumenak eta baliabideak	Or. 15
4.3. Bigarren mailako prebentziorako programa	Or. 18
1.0.10 Inguru Irekiaren programa	Or. 18
1.0.20 Gaitzen programa	Or. 20
4.4. Ikerketa/Ebaluazio programa	Or. 22
4.5. Familian esku hartzeko programak	Or. 26
20 ARRISKU EGOERAN ETA/EDO BABES GABEZIA EGOERAN DAUDEN HAURRAK ESKU HARTZEKO PROGRAMA	Or. 30
2.1. Prozedura nagusia	Or. 30
2.2. Detekzioa eta jakinarazpena	Or. 32
2.3. Harrera	Or. 34
2.4. Ikerketa	Or. 38
2.5. Sexu-abusuaren susmoa dagoenerako ikerketa	Or. 44
2.6. Ebaluazioa	Or. 47
2.7. Esku-hartzea	Or. 50
30 JARDUTEKO PROTOKOLOAK	Or. 54

Jarduteko barne-protokoloa, haurrak arrisku egoeran edo babesgabezia egoeran daudenerako

10 SARRERA

Haurrak eta nerabeak, alegia, adingabekoak pertsona osoak dira, gizonezko eta emakumezko guztiei gizarteak eta legeak aitortzen dizkien eskubide eta balio guztiekin.

Azken urteetan Pasaiaiko udalerrian bizi diren haurren eta nerabeen egoera lehentasunezkoztat eta berariazkoztat hartu du Pasaiaiko Udalak.

Apustu sendoa egin du Udalak udalerriko adingabekoen tratu onaren alde. 2008an erakunde-adierazpena onartu zuen haurren eta nerabeen tratu onaren eta babesaren aldeko konpromisoa hartuta. Erakunde-adierazpen horren bitartez, Pasaiaiko udalbatzak haurren eta nerabeen bizitzako arlo guztietarako laguntza-sare formalak eta ez-formalak sustatu nahi izan ditu, haien garapena eta ongizatea bultzatuz, eta aurre egiteko gaitasuna indartuz, mina agertzen den egoeretarako.

Alkatetzaren eta sailen arteko mahaiaren artean elkarlanean plana eratu zen, eta planean udalbatzarrean adostutako erabakia txertatu zen, oinarrizko hiru lerro estrategikori jarraiki:

1. Lehenengoa, haurren eta nerabeen aldeko tratu ona eta prebentzioa bultzatzea, eta haurren eta nerabeen arrisku eta babesgabezia egoerei aurrea hartzea.
2. Bigarrena, udalerriko elkarten sarea biziberritzea, eta haurrekin eta gazteekin lan egiteko modu berriak abiaraztea, gizartearen erantzukidetasuna bermatzeko eta bultzatzeko.
3. Hirugarrena, Pasaiaiko adingabeko guzti-guztien elkarbizitzaren eta gizarteratzearen bermea garatzea, kultura eta jatorria edozein dela ere, eta horretarako, guztiei harrera ona egitea bultzatzea eta sustatzea.

Arrisku edo babesgabezia egoeran diren udalerriko haur eta nerabeek osatzen dute bereziki biztanleriaren sektore ahulena. Horiek horrela, Pasaiaiko Udalaren Gizarte Ekintza Sailaren helburu nagusienak dira ongizatea bermatzea eta oinarrizko beharrak asetzea.

Biztanleriaren zatirik ahulena artatzeko helburua Udalaren konpromisoa ez ezik, Gizarte Ekintza Sailarena ere bada. Haurrak babesteko sistema araudi zabal batek arautzen du, nola nazioartean, hala Europan, estatuan eta erkidegoan.

Jarduteko barne-protokoloa, haurrak arrisku egoeran edo babesgabezia egoeran daudenerako

Pasaiaiko Udala hurren babesaren aldeko jarduketa-protokoloak egokitzen joan da, eta arlo honetako lege arloko marko zabalera egokitu da, bereziki hauetara:

- EAEko abenduaren 5eko Gizarte Zerbitzuei buruzko 12/2008 Legearen 6. artikulua xedatzen duenaren arabera, Gizarte Zerbitzuetako Euskal Sistemak beste sistema eta politika publiko batzuekin elkarlanean, herritar guztien ongizatea bultzatu behar du. Besteak beste, larrialdietarako egoerek eragiten dituzten behar pertsonal eta familiarrak prebenitzea eta artatzea da oinarrizko helburua.
- 3/2005 Legea, otsailaren 18koa, haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babestekoa; besteak beste, honako hauek jasotzen dira: babesgabezia-egoeran edo arrisku-egoeran dauden haur eta nerabeak babesteko eginkizunaren jardute printzipioak zedarritzea, bai eta eskumenen eta erakundeen esparrua ere; eta haurrak eta nerabeak babesteko honako neurri eta jarduketak burutuko dira: batetik, hurrek eta nerabeek jasan litzaketen arrisku eta babesgabezia egoerak prebenitzea eta egoera horietan esku hartzea eta, bestetik, haur eta nerabe horien garapen integrala bermatzea eta familia-bizitza arrunta sustatzea, betiere, adingabearen interesari lehentasuna emanez.

Hurren tratu txarra errealitate gogorra dela hartzen da abiapuntutzat, nahiz eta badiren baliabide eta tresnak aurre egiteko. Gizarte osoaren eta baliabide aktibo guztien arteko elkarlana da garrantzizkoena. Elkarlana, elkarrekintza eta sareko lana oinarrizko baliabideak izango dira, helburu zail, zabal eta kontuzkoa betetzeko.

Horrenbestez, helburu handinahari erantzungo bazaio, lan espezializatu, egituratu eta antolatua egin behar da. Horretarako, Pasaiaiko Gizarte Ekintza Sailak berrantolatu nahi izan du arrisku-egoeran dauden hurren eta nerabeen arreta, eta garatu nahi izan du lanerako lerro estrategikoa, saileko gizarte-laguntzaileei hurren babesari buruzko berriazko prestakuntza emanda, eta banakako eta taldekako gainbegiratzeko guneak emanda, gero eta espezializazio handiagoa behar den eginkizuna egite aldera.

Hurren babesgabeziako kasuak detektatzea ez da erraza. Gertaerak normalean familien intimitatean gertatzen dira, kanpoko ikuslerik gabe, eta aztarna argirik utzi gabe. Badira usteak (zorionez, gero eta gutxiago), gizarte-egoera ahuleko familiei eragiten diela diotenak, edota familia barruan gertatzen diren gaiak direnez, familia barruan gelditu behar dutela diotenenk, inork barruan sartzeko baimenik izango ez balu bezala. Ez da, ordea, balorazio egokia egiten, adingabekoa

Jarduteko barne-protokoloa, haurrak arrisku egoeran edo babesgabezia egoeran daudenerako

arriskuan baitago eta babesgabeziaren ondorioak handiak baitira. Udaleko oinarrizko gizarte zerbitzuek arrisku edo babesgabezia egoeran egon litezkeen adingabeak edo laguntzarako prozesu baten hasieran dauden haur eta nerabeak babestu beharra dute, eta horretarako egoera detektatu behar da eta gizarte zerbitzuek jakinaren gainean egon behar dute, egokitzat irizten diren jarduketak gara daitezen.

Horiek horrela, adingabeen babesaren aldeko sistema osorako garrantzi handikoa da esku-hartzeetan orientaziorako erreferentzia-markoa izatea, baita sistema horretan diharduten profesionalentzat ere.

Nola esku hartu ez ezik, zergatik eta zertarako esku hartu behar den ere beharrezkoa da. Ezin da esku-hartzeen plangintza egin, arrazoibidea zertan den eta helburua zein den jakin gabe.

Horregatik, funtsezkoa da udaleko gizarte zerbitzuetako profesionalak marko teknikoa izatea, jarduketetarako prozedura normalizatuak eta homogeenak garatu ahal izateko haurren arrisku- edo babesgabezia-egoerak direnerako.

Beraz, arrisku- edo babesgabezia-egoeran dauden haurren lana homogeneizatzeko aldera, Gizarte Ekintza Sailean arrisku-egoeran eta/edo babesgabezia-egoeran dauden udalerriko haurrak eta nerabeak artatzeko berriazko programa dago. Arretarako programa egituratu nahi izan duenez, Gizarte Ekintza Sailak jarduketarako barneko eskuliburu hau landu du, arrisku-egoeran edo babesgabezian dauden haurrak daudenerako, bi tresna tekniko oinarrizkat hartuta, arlo horretako lanaren jarraibide gisa:

- Gipuzkoako Foru Aldundiaren jarduketa-gida, haurrak babesgabezian dauden egoeretarako. Gipuzkoako erreferentzia tekniko nagusia da hori.
- Euskal Autonomia Erkidegoko haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko udaletako eta lurraldeetako gizarte zerbitzuetarako balorazio-tresna, arrisku-egoeren larritasuna zehazten duena, azaroaren 8an arautua, 230/2011 Dekretuaren bitartez.

Jarraian aurkeztuko da haurren arrisku edo babesgabezia egoeretan jarduteko barneko eskuliburua, Pasaia Udalaren gizarte zerbitzuetako profesionalen taldeak egindakoa, arlo horretan eskumenak eta erantzukizunak zehazte aldera.

Jarduteko barne-protokoloa, haurrak arrisku egoeran edo babesgabezia egoeran daudenerako

2 HELBURUAK

2.1. Helburu orokorra

Arrisku egoeran eta/edo babesgabezia egoeran dauden haurrak eta nerabeak artatzeko programa garatzea eta egituratzea Pasaiaiko Udalaren Gizarte Ekintza Sailean.

2.2. Helburu bereziak.

- Pasaiaiko Gizarte Ekintza Sailean jasotzea eta zehaztea haurren babeserako gaietan jarduteko prozesuak eta prozedurak.
- Pasaiaiko Udalaren Gizarte Ekintza Saileko gizarte-langileek arlo honetan egiten duten lana bateratzea eta homogeneizatzea.
- Sailak egiten duen lana eta esku hartzen ari diren gainerako eragileek (gurasoak, adingabekoak, ikastetxeak eta irakasleak, osasun zentroetako langileak, esku hartzean diharduten taldeak...) egiten duten lana egituratzea.
- Gizarte-langileei baliabideak eta irizpideak eskaintzea, aldi guztietan eta esku hartzeko prozesuetan erabakiak har daitezen.
- Gizarte-langileek haurren babeserako lanean egin beharreko lana erraztea, material idatziaren bitartez (protokoloak, txostenak egiteko ereduak,...)
- Sailean arrisku eta/edo babesgabezia egoeran dauden lagunak artatzeko programaren barruan sare-lana bultzatzea, bereziki, bigarren mailako prebentzio-programetan, esaterako, Inguru Irekiaren Programan eta Familia zaintzeko programetan.
- Udaleko harrerako programen arteko eta prebentzioko programen arteko lotura erraztea, bereziki, Pasaiaiko haur eta nerabeen eskubideak bermatzeko udal-planaren testuinguruan bultzatzen diren programena.

Jarduteko barne-protokoloa, haurrak arrisku egoeran edo babes gabezia egoeran daudenerako

3 MARKO JURIDIKOA

Haurren babeserako gaiari buruzko legeria zabala da, bai nazioartean bai estatu mailan; besteak beste: haurren eskubideen adierazpena 1959ko azaroaren 20an Nazio Batuen Batzar Orokorrak onartutakoa; haurren eskubideei buruzko batzarra, 1990etik indarrean dagoena; Espainiako Konstituzioa; Kode Zibila eta azaroaren 11ko 21/87 legea, haurren babeserako judizialak ez diren beste neurri batzuk ekarri zituena eta haurraren interes gorena nagusitu zuena; eta 1/96, haurraren babes juridikoari buruzkoa, 11. artikuluan honela dioena: “administrazio publikoek adingabeak euren eskubideen erabilera egin dezaten beharrezko laguntza emango diete haiei”. (...) *Gizartean dauden desberdintasunak zuzentze aldera, politika osagarriak bultzatuko dira. (...) Administrazio publikoek haien eskumenen erabilera egitean, kontuan izan beharko dituzte adingabeak beharrezkoak...*” Honako eskuliburu honetan haurren babesari buruzko erkidegoko legeria bakarrik hartuko da kontuan.

Abenduaren 5eko Gizarte Zerbitzuei buruzko 12/2008 Legearen 22. artikuluan oinarritzeko gizarte zerbitzuen eta gizarte zerbitzu espezializatuen prestazioak jasotzen dira.

Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren antolamenduari eta egiturari dagokionez, lege bereko 27. artikulua gizarte-zerbitzuen euskal sistemaren antolamendua zehazten eta garatzen du, eta Lehen Mailako Arretako Zerbitzuek bide emango diete erabiltzaileei gizarte-zerbitzuen sistema osora iristeko, eta autonomiaren, gizarteratzearen eta larrialdien edo babesgabetasunaren inguruko egoerei erantzuneko diete eta, batez ere, arrisku-egoeren prebentzioari erreparatuko diete.

Udaletako gizarte zerbitzuei egozten zaizkien funtzioei dagokienez, 28. artikuluan agertzen dira kasuen gainbegiratzea eta profesionalei prestakuntza eta orientabidea ematea.

Lege bereko III. Tituluan banatzen dira administrazio publikoetako eskumenak, nola Eusko Jaurlaritzarenak, hala foru aldundi eta udalenak. Horrenbestez, legearen betekizuna eta arauen garapena Eusko Jaurlaritzaren gain geldituko da.

Legearen 41. artikuluan jasota dagoenari jarraiki, foru aldundiek honako hauek garatuko dituzte “... *Arriskuan dauden adingabeak babesteko dauzkaten eskumenak, haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko arloan otsailaren 18ko haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko*

Jarduteko barne-protokoloa, haurrak arrisku egoeran edo babes gabezia egoeran daudenerako

3/2005 Legeak esleitzen dizkienak.

Azkenik, 42. artikuluan ezartzen dira haurren babeserako gaian udalen eskumenak zeintzuk diren; *"...arriskuan dauden adingabeak babesteko dauzkaten eskumenak, haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko arloan indarrean dagoen araudiak esleitzen dizkienak"*.

Haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko otsailaren 18ko 3/2005 Legean Euskal Autonomia Erkidegoari gai honetako marko orokorra ematen zaio. Lehendik zegoen hutsune juridikoari erantzuna eman nahi izan zitzaion lege horren bitartez, batetik, haurren eta nerabeen eskubideen babesaren eta sustapenaren alde egiteko; eta bestetik, adingabeak arau hausle direnerako, gizarte eta heziketa arloko arreta jasotzeko.

Lege horretan Euskal Herrian dauden edo bizi diren haur eta nerabeen eskubideak aitortzeaz gain eta haien betebeharrak zerrendatzeaz gain, arrisku edo babes gabezia egoeretan administrazioaren jardun babesleak nolakoa izan behar duen jasotzen da.

Pasaiaiko Udaleko oinarrizko gizarte zerbitzuetako barneko eskuliburua denez, gizarte zerbitzuek egiten duten esku-hartze prozesuan jarriko da arreta. Agintarien eta herritarren betebeharre dagokienez, 50. artikuluan honela jasotzen da: *"Bai agintariek eta zerbitzu publikoek bai herritarrek, batez ere lanbidea edo betetzen duten eginkizuna tarteko, haur edo nerabe bat arrisku edo babesgabezia egoera batean egon daitekeela ikusten dutenek, haur edo nerabeari laguntza berehala eskaintzeko betebeharra dute, eta, beren eskumenean badago, jarduteko, edo bestela, eskumena duten agintariei jakinarazteko"*.

Lege bereko 51. artikuluan zehazten dira jakinarazi beharko liratekeen arrisku-egoerak zeintzuk diren: *"Arrisku-egoerak dira haurraren edo nerabearen garapen pertsonal edo sozialari kalte egin diezaioketen egoerak, babesgabeziatzat jo ezin daitezkeenak eta, hortaz, legeak agindutako tutoretza ezartzea eskatzen ez dutenak"*. *"...Arrisku-egoera agertuko da, gizartearen, familiaren edo adingabearen beraren gorabeheren ondorioz, adingabearen garapena eta ongizatea mugatuta edo kaltetuta gertatzen badira, eta gurasoek, tutoreek edo zaintzaileek ez badituzte beren gain hartzen haurraren edo nerabearen garapen egokia bermatu ahal izateko erantzukizunak, edo erantzukizun horiek osorik beren gain ez hartzea gerta badaiteke..."*.

52. artikuluan arrisku-egoeretako jarduketan deskribapena egiten da. Lehenengo puntuan, *"Arrisku-egoeretan, haurrak eta nerabeak babesteko arloan eskumena duten herri-administrazioek haien eskubideak bermatu egin behar dituzte, bai eta haien beharrezanetan*

Jarduteko barne-protokoloa, haurrak arrisku egoeran edo babes gabezia egoeran daudenerako

laguntza emango dela ziurtatu ere. Arlo honetan egiten diren jarduketa publikoek haurren, nerabeen eta horien familien moldatze pertsonala eta sozialean eragin negatiboa duten arrisku-faktoreak desagerraraztea izango dute helburu. Horretarako, honako hauek sustatuko dira: gurasoen, tutoreen edo zaintzaileen laguntza, adingabeei eta haien familiei laguntzeko bitartekoen erabilera, komunitatearen esparruko esku-hartzea, bai eta orientabidea emateko eta jarraipena egiteko zerbitzuak ere..."

Artikulu bereko hirugarren puntuan honela jasota dago: "...Adingabeak babesteko arloan eskumena duten herri-administrazioek aurkitutako edo salatutako egoera egiaztatzeko betebeharra izango dute; orobat, kasuak agertzen dituen ezaugarriak eta beharrianak ebaluatzeko betebeharra izango dute, eta kasua ebaluazio horren emaitzaren arabera ebaztearren beharrezkoak diren neurriak hartzeko betebeharra ere bai.

Oinarrizko gizarte zerbitzuen esku-hartzea dela-eta, 53. artikulua lehenengo puntuan honela dio: "Arrisku-egoeretan, oinarrizko gizarte-zerbitzuek kasua hartu eta ikertu egin beharko dute, baloratu eta bideratu eta, beharrezkoa baderitzote, komunitatearen esparrutik esku hartu behar dute". "Haurraren babesgabezia-egoera oso larria dela iruditzen bazaie, esku-hartze espezializatuaren beharra dagoelako edo, are gehiago, adingabea bere familia-inguruetik bereizi behar delako, kasua haurrak eta nerabeak babesteko zerbitzu espezializatura igorri beharko dute..."

Artikulu bereko bigarren puntuan, "Baldin eta oinarrizko gizarte-zerbitzuek uste badute komunitatearen esparrutik esku hartu behar dutela, kasu bakoitzerako arreta-plan bat egin beharko dute, eta, bertan, aurkitutako beharriari erantzuteko taxutu dituzten esku-hartzeak zehaztuko dituzte".

Azaroaren 8ko 230/2011 Dekretuaren bitartez onartu zen Euskal Autonomia Erkidegoko haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko udaletako eta lurraldeetako gizarte zerbitzuetarako Balorazio-tresna (BALORA), arrisku-egoeren larritasuna zehazten duena. Eta familiaren barnean sortzen diren arrisku eta babesgabetasun egoerak izan badirela adierazteko, eta egoeren larritasun maila balioesteko sortua da. Halaber, beste helburu batzuen artean honako hauek lantzen dira: haurren eta nerabeen zaintzan eta babesean lanean diharduten gizarte zerbitzuetako profesionalen lana erraztea; esku-hartze prozesua arintzea, eta udaletako eta lurraldeetako elkarlana hobetzea, haur eta nerabeen eta haien familiartekoen zaintzaren kalitatea hobetzeko elkarlanean aritzearren.

Jarduteko barne-protokoloa, haurrak arrisku egoeran edo babesgabezia egoeran daudenerako

Dekretua bi bloke handitan zatituta dago: lehenengoan, tresna testuinguruan kokatzen da, eta arrisku eta babesgabetasun egoeren esku hartzeko prozedura zehazten da.

230/2001 Dekretuaren bigarren zatian arrisku eta babesgabetasun egoeren baloraziorako Balora izeneko tresnaren deskribapena egiten da. Bertan jasotzen dira babesgabeziako tipologiak eta egoeren larritasun mailaren balorazioa egiteko irizpide teknikoak.

4 PASAIAN ARRISKU EGOERAN ETA/EDO BABES GABEZIA EGOERAN DAUDEN HAURRAK ETA NERABEAK ARTATZEKO PROGRAMA

4.1. Testuinguruan kokatzea:

Pasaiaiko Udalaren Familian Esku hartzeko Programa 2001ean abiarazi zen Pasaiaiko gizarte-zerbitzuetan.

Urte hartan saileko langile teknikoek hausnarketa egin zuten, eta udalerrian jasotako beharrei erantzun beharra zegoela hitzartu zuten. Halaber, profesionalen lana sendotu beharra zegoelako iritzia agertu zuten, izan ere gizarte-zerbitzuetan ez zegoen nahikoa teknikari gizarte-zerbitzuetako gaiari zegokionez, zereginak zehaztekoa zen Euskal Autonomia Erkidegoko 1996ko Gizarte Zerbitzuen Legean eta 2001eko Foru Dekretuan jasotako zehaztapenei erantzuteko. Gizarte Ekintza Sailak Pasaiaiko Udaleko gizarte-zerbitzu komunitarioen lehenengo plangintza estrategikoa landu zuen orduan.

Plan estrategikoan jasotakoari jarraiki, Pasaiaiko Udalaren Gizarte Ekintza Saila udalerriko herritarren eta taldeen zerbitzura dagoen zerbitzu publiko irekia da, eta helburu hauek betetzeko egiten du lan: bizi-kalitatea hobetzeko, eta ongizate biologikoa, psikologikoa eta soziala sustatzeko.

Pasaian babesgabezia egoeran dauden haurrak eta nerabeak artatzeko egungo programaren jatorria familia-tratamenduaren zerbitzuan dago, eta Plan estrategikoan hezkuntza ez-arautuaren eta birgaitzearen programaren barruan jasota agertzen zen.

Ordu hartan, familia-tratamenduaren zerbitzuko hartzailleak ziren bazterketa-egoeran, arrisku-egoeran eta/edo desabantaila-egoeran zeuden familiak, izan ere laguntza hezitzailea

Jarduteko barne-protokoloa, haurrak arrisku egoeran edo babesgabezia egoeran daudenerako

eta/edo terapeutikoa behar izaten zuten, krisi-egoeran zeudelako edo familian antolaketarik eza agertzen zutelako. Familia-tratamendurako Zerbitzuaren helburua honako hau zen:

- Norberaren eta/edo familiaren desegituraketari aurrea hartzea edo aurre egitea, familiari laguntza emanda, beharrezko trebetasun eta baliabideak emanda, harremanak hobetzeko eta familiako kide guztien autonomian aurrera egiteko.
- Familiaren antolamenduan hobera egitea, eta familia-unitateari dagozkion gizarte-rol egokiak izan daitezen ahaleginak egitea.

Familiekin urteetan tinko lan egin eta gero, Gizarte Ekintza Sailak gizarte-laguntzaileen prestakuntzaren aldeko apustua egin zuen, zehazki, haurtzaroaren eta familiaren gaietan. Horrela, 2004an aldi berri bati ekin zitzaion, eta gainbegiratze-mahaia eratu zen, gaian berariaz aditua zen talde batek zuzenduta.

Gainbegiratze-lana egin beharra zegoen, izan ere gazte ugariengan maitasun- eta sexu-garapenean arriskuko adierazleak sumatu ziren. Adierazleak, gehienbat, kale-heziketaren taldeko profesionalak sumatu zituzten.

Egoera halakoa zenez, Gizarte Ekintza Sailak erabakia hartu zuen arazoari bereziki erabat heltzeko eta, horretarako, lanerako berariazko plana landu zuen, gaian espezialista zen talde baten laguntzarekin. Gainbegiratze-lan bateratu zorrotza egin zuen, bai gizarte-laguntzaileena, bai kale-heziketako taldearena.

Hasiera batean gainbegiratze-lanaren begirada euren adinerako sexu-jokabide desegokiak agertzen zituzten adingabekoengan jarri bazen ere, gainbegiratzeko gunea topaketarako, hausnarketarako eta taldean lan egiteko gune bihurtu zen, gizarte-laguntzaileen eta kale-heziketaren taldeko profesionalen artean, bereziki.

Egoera horretan oinarrituta, familia-tratamenduaren zerbitzua indartzen hasi zen eta saileko errealitatera egokitzen joan zen. Une hartan beharrezkotzat jo zen familia-tratamendurako zerbitzua Gipuzkoako Foru Aldundiak garatutako marko teorikora egokitzea, eta indarra hartzen hasi zen haurren babeserako gaiak indartu beharra zuela. Behar hori 2005ean Haurren eta Nerabeen Babesaren aldeko Euskal Legearen onarpenarekin sendotu zen.

Gizarte Ekintza Sailean 2010ean bukatutzat eman zen 2004an hasitako gainbegiratze-

Jarduteko barne-protokoloa, haurrak arrisku egoeran edo babesgabezia egoeran daudenerako

lanak, gizarte-langileek eta kale-hezitzaileek nahikoa gaitasun eskuratu zituztelako adinerako egokiak ez ziren sexu-jokabideen zaintza egiteko, eta haurren babeserako esku-hartzearen norabidea arlo komunitariora zabaldu beharra zegoelako. Gizarte Ekintza Saila 2007an beste udal-sail batzuekin batera (Kultura, Euskara, Udaltzaingoa, Gazteria eta Kirolak, Migrazioa eta Aniztasuna) sailen arteko mahaira bildu zen, eta bertan Pasaiaiko haurren eta nerabeen zaintza eta babesaren erantzukizuna hartu zuen Udalak, ikuspegi komunitarioa erabilita. Sailen arteko lanak Pasaiaiko haurren eta gazteen eskubideak bermatzeko plana onartzea ekarri du.

Aldi berean, 2009an, Pasaiaiko Udalaren Gizarte Ekintza Sailak haurren babeserako lana banan-banako arloan eta familia arloan hobetzea erabaki zuen, eta horretan abiapuntu hartu zuen 2004an hasitako gainbegiratze-lana arlo komunitariora zabaldu izana. Helburua zen arrisku-egoeran eta/edo babesgabezia egoeran zeuden haurrak eta nerabeak zaintzeko programa egituratzea eta sendotzea.

Une hartan gizarte-laguntzaileen taldeak psikologoa kontratatu zuen, haurren babesean espezialista. Eginkizun hauek betetzen ditu:

1. Gizarte-langileek garatzen duten haurren babeserako lanari buruzko aholkuak ematea banan-banan, eta haurren babeserako lana gainbegiratzea, kasuak hartzen direnetik, kasuei amaiera ematen zaienera arte.
2. Gizarte-langileen taldearen beharrekin bat datorren prestakuntza ematea, ezarritako jarduketaren prozedura betetze aldera, eta hurrei buruzko ezagutza, eta bereziki, babesgabezia, ezagutze aldera.
3. Arrisku arin edo arrisku ertaineko kasuen balorazioa egitea, eta arrisku handiko kasuak izan litezkeen ikerketa egitea.
4. Kasuaren planaren inplementazioa egitea, Pasaiaiko Udalak egindako balorazio guztietan.

Horrenbestez, 2009. urtetik aurrera, babesgabezia arineko eta ertaineko arriskua duten egoerei buruzko zaintza egokia egiteko Pasaiaiko Udalak baliabide eta zerbitzu hauek ditu:

- Bost gizarte-langile, eginkizun hauek betetzeko: jakinarazpenak jaso, ikerketak egin, esku hartzeko planak diseinatu, eta esku hartzeko planen egikaritzearen koordinazio-lanak egin.
- Psikologo bat, balorazio programa garatzeko.
- Lau kale-hezitzaile, arrisku-egoeran eta babesgabezia-egoeran dauden adingabekoen

Jarduteko barne-protokoloa, haurrak arrisku egoeran edo babesgabezia egoeran daudenerako

egoeretan gizarte-langileen eginkizunaren alde egiteko eta haien lana osatzeko. Kale-hezitzaileek Pasaia Inguru Irekiaren Programan egiten dute lan (Bigarren mailako Prebentzio Programa, Gizarte Ekintza Sailera atxikia).

- Esku hartzeko taldeak, familiak babesteko programetarako kontratatuak. Taldeetan haurren babesaren gaian adituak diren familia-hezitzaileek eta psikoterapeuta espezialistek dihardute.

Azken lau urteetan gizarte-langileak gaitu egin dira, eta gaitasun profesional eta pertsonal hobeak dituzte haurtzaroaren gaiari dagokion esparruan jarduteko, benetan esparru sentibera. Prozedurak barneratu dira, eta haurren arloko lana homogeneizatu egin da. Programa aurrera eramateko eta ontzat emateko egitura sendotu da.

Programa bizia da, eta aldaketen mendean dago. Egituraren barnean sartzen da Pasaia udalerriko haurren eta nerabeen prebentzio-lana, zaintza eta babesa.

Gizarte Ekintza Sailean 2013an erabakia hartu zen talde teknikoko bi gizarte-lagunek elkarlanean programaren ardura har zezaten. Haien eginkizunen artean jasota dago eskuliburu honetan jasotakoa bermatzearen ardura hartzea.

4.2. Jarduketarako eskumenak eta baliabideak:

Arrisku-egoerak eta/edo babesgabezia-egoerak artatzeko programaren helburua da arrisku eta/edo babesgabezia-egoeretan jarduteko Gipuzkoako Foru Aldundiaren gidan ezarritako eskumenari erantzuna ematea, baita Balora Dekretuan ezarritakoari ere, zehazki, udaletako zerbitzu publikoei ezarritako eskumena, ezinbestean bete beharrekoa eta garatu beharrekoa.

Aldundiaren jarduteko gidan, lehenik, udaletako gizarte zerbitzuei jarduteko eskumen hauek egozten zaizkie:

1. Lehen mailako prebentziorako programak eta jarduketak garatzea, lehen mailako gainerako zerbitzuekin batera.
2. Programak eta jarduerak garatzea, babes bereziko haurren egoerei aurrea hartzeko, eta egoerak lehenbailehen jakinarazteko.
3. Eskumenekoa izan eta, inguruko lurraldeko partikularrek, profesionalek edo zerbitzuek egiten dituzten haurren arrisku- eta babesgabezia-egoera guztien jakinarazpenak jasotzea.

Jarduteko barne-protokoloa, haurrak arrisku egoeran edo babes gabezia egoeran daudenerako

Salbuesenezkoak izango dira berehalako babes behar duten jakinarazpenak. Eta kasuen ikerketa egitea.

4. Kasu larriak direnerako, balorazioa egingo da, larrialdiko babes-neurriak hartu behar ote diren, eta hartu behar izanez gero, har daitezten.
5. Bigarren mailako prebentziorako berariazko programak garatzea, lehen mailako gainerako zerbitzuekin batera eta elkarlanean.
6. Prebentziorako eta esku-hartze goiztiarrerako programak garatzea, gizarte-jokabide desagokiak agertzen dituzten haur eta gazteentzat.
7. Familian esku hartzeko programak garatzea, haurren babes gabezia arina edo ertaina duten familientzat.
8. Familiekin bizi eta arrisku-egoeran edo babes gabezia-egoeran dauden haurrak zuzenean artatzeko laguntza-jarduketak eta -jarduerak garatzea.
9. Komunitateko zerbitzuen eta erakundeetako beste zerbitzu batzuen parte-hartzea eta koordinazioa bultzatzea, haurrak arrisku- edo babes gabezia-egoera arin edo ertainetan daudenerako.

Bestalde, Balora Dekretuaren legezko aginpidea jasotzen da hurrengo atalean, eta bertan ezartzen da haurren zaintzaren eta babesaren alde ezinbestean esku hartu beharra dagoela, egoeren larritasunaren arabera, esku hartzeko mailak lehenetsita. Laburbilduz:

- Lehen mailako prebentzioko programak garatzea zerbitzu komunitarioen saretik abiatuta, haurren beharrei erantzuna emateko. Eginkizun hori bereziki Udalean sortutako sailen arteko mahaiaren saretik bideratzen da.
- Udaleko gizarte-zerbitzuetatik bigarren mailako prebentzioko berariazko programen garapena babesgabeziako-egoeretan edo babesgabetasun arineko egoeretan erortzeko arriskua duten adingabekoei begira. Pasaiaiko Udalak Inguru Irekiko programa eta Gaitzen programa ditu.
- Babesgabetasuneko arrisku ertaineko egoeran dauden adingabekoentzako udaleko gizarte zerbitzuek familian esku hartzeko programak garatzea. Berariazko kabinetek aurrera eramaten dituzten programak.

Pasaiaiko Udalak baliabide-sare osoa diseinatu du, arrisku-egoera edo babesgabezia-egoerak daudenerako, egoeren larritasun maila kontuan izanda. Sarea koadro honetan ageri da

Jarduteko barne-protokoloa, haurrak arrisku egoeran edo babesgabezia egoeran daudenerako

ikusgai:

4.3. Bigarren mailako prebentzio-programak:

4.3.1. Kale-heziketaren programa

Arrisku-egoeran dauden gazte eta adingabekoekin kalean esku-hartze hezitzailea bultzatzeko programa sailak arlo honetarako duen baliabiderik nagusiena da. Programa hau Pasaian 1993an hasi zen garatzen. Data horretan Gizarte Ekintza Sailak balioetsi zuen beharrezkoa zela arrisku eta bazterketa egoeran zeuden Pasaiaiko haurren eta gazteen arazoa osotara lantzea.

Azken urteetan legearen arloan ez ezik, Pasaiaiko Udalaren Gizarte Ekintza Saileko egituraren ere aldaketak gertatu dira. Izan ere, eginkizunak, funtzioak, giza baliabideak edota esku hartzeko baliabideak egokitzen eta moldatzen joan dira. Halaber, kale-heziketaren programaren metodologia ere aldatu egin da. Alabaina, programaren izaera aldaezina da: gizarte eta hezkuntza arloko baliabidea eskaintzea Pasaiaiko adingabekoentzat, arlo komunitariotik abiatuta.

Ekintza hezitzailea arrisku-taldeein zuzenduta badago ere, kale-heziketaren programaren bitartez, udalerriko haurren eta gazteen sare osoan eragingo da, gabezia sozialik duen talderik ote dagoen jakiteko, eta horrelakorik baldin bada, talde horiek ingurune osasungarriagoetan txertatzeko.

Horregatik, halaber, garrantzizkoa da herriko gizarte-eragileekin lan egitea, eta dauden baliabideak erabiltzea.

Norberaren inguruabarrek eraginda edo inguruak eraginda (zaintzaren gabeziak, gorabehera ekonomikoak, familia-gorabeherak, etab.) arrisku egoeran (bazterketa-egoeran eta/edo desabantaila-egoeran) dauden 7 eta 17 urte bitarteko adingabekoein zuzenduta dago programa hau.

Halaber, profesionalek adingabekoekin harremana duten guztiekin dute harremana: guraso, komunitateko gizarte-eragile, baliabide komunitario, etab.

Gaur egun, kale-heziketaren programan lau kale-hezitzaile ari dira lanean, jarduera eta proiektu hezitzaileen bitartez, nola banaka, hala taldeka, lanean ari dira, helburu hauek

Jarduteko barne-protokoloa, haurrak arrisku egoeran edo babesgabezia egoeran daudenerako

betetzarren:

- Gazteei aisialdirako eredu osasungarria eta egokia ematea.
- Pertsona baliagarriak eta garrantzitsuak direla adieraztea.
- Konfiantzarako, enpatiarako, gizarte-trebetasunetarako eta giza balioetarako gaitasuna hobetzea.
- Norberaren autonomia sustatzea.
- Frustrazioa jasateko gaitasuna indartzea.
- Estupefazianteen kontsumorako ohiturei buruzko hausnarketa egitea.
- Baliabide normalizatuetan txertatzeko aukerak ematea.
- Garapen psikosexual osasungarriaren alde egitea: gogokoak ez diren haurdunaldiak eta sexu bidezko gaixotasunen kutsapena ekiditeko, sexu bidezko elkarreraginerako ereduak ezagutzeko, edo indarrez hartzen diren sexu jokabideak gutxitzeko.
- Arauak eta mugak ezagutzea eta errespetatzea.

Kontuan izanda kale-heziketaren programa bigarren mailako prebentzioko programa dela, eta arrisku eta/edo babesgabezia egoeretan artatzeko programari atxikita dagoela, zalantzarik gabe, baieztatzekoa da gero eta garrantzi handiagoa hartzen ari direla egitura eta sarean lan egiteko metodologia, bigarren mailako prebentzioko gainerako programekin eta arretarako programan txertatzen diren bi programa handiekin batera:

- Ikerketa/ebaluazio programa
- Familiaren zaintzarako programak

Arrisku edo babesgabezia egoeran dauden haurrak eta nerabeak artatzeari dagokionez, Pasaia kale-heziketaren programaren eginkizun nagusiak bi dira nagusiki:

1. Alde batetik, haurren arrisku eta babesgabeziaren detekzioa, eta ondorengo jakinarazpena eskumena duen administrazioan.
2. Beste alde batetik, arrisku-egoeran dauden adingabekoen kasuekin herrian esku hartzea, zehazki, egoera ahulean dauden haurrak; eta arrisku arina, ertaina edo larria duten haurra izaten dira.

Jarduteko barne-protokoloa, haurrak arrisku egoeran edo babesgabezia egoeran daudenerako

Kale-heziketaren programa eta ikerketa/ebaluazioaren programa

Kale-heziketaren programak arrisku-egoeretako esku-hartze prozesu osoan etengabeko presentzia izan behar du sailean, arrisku-egoera garaiz igertzeko zerbitzua denez, izan ere arrisku-egoeran dauden herritarrei zuzenduta dago lana. Ikerketa eta ebaluazio prozesuetan bigarren mailako informazioa eskuratzen da; baita familian esku hartzen denean ere.

Kale-heziketaren programa eta familiaren zaintzarako programak.

Gizarte Ekintza Saila familiaren tratamendurako programetan esku hartzen ari denetan, kale-heziketaren programako profesionalen esku-hartzea kasuaren planaren dokumentuan jasoko da.

Familiaren zaintzarako programaren (gurasoen gaikuntza, jarraipena edo esku-hartzea adingabekoekin) bitartez familian esku hartzen denean, kale-hezitzaileek esku-hartze hezitzailea egiten dute, eta kontuan izaten dituzte ohartemandako arloak eta artatutako haurrengan sumatutako beharrak, betiere, familiarekin esku hartzen ari diren programekin elkarlanean. Hartara, kasuaren koordinatzaileak proposatzen dituen sareko bileretan esku hartu beharra dute.

Kale-heziketaren programa eta Gaitzen

Gaitzen Programaren bidez artatzen diren familiei dagokienez, kale-heziketaren programako arduradunen eginkizuna da sailak egokitzat jotzen dituen helburuak gurasoen seme-alabekin lantzea, eta kasuaren planaren agirian jasotzea. Hori horrela, guraso parte-hartzaileek euren seme-alabek programan parte hartuko duten konpromisoa hartu beharra dute eta, beraz, kale-hezitzaileek harreman estua izango dute gurasoen programan ari diren profesionalekin; eta haiekin elkarlanean arituko dira.

4.3.2. Bigarren Mailako Prebentzio Programa, babesgabetasun arineko arrisku eta ahulezia egoerak direnerako, "GAITZEN".

Gaitzen Programa Udalak sortu berri duen baliabidea da, ezaugarri pertsonal, familiar eta sozialengatik ahulezia-egoeran, babesgabeziatik gertu edo babesgabetasun arineko arrisku-egoeran diren adingabekoen bizimoduaren kalitatea hobetu dadin sortua.

Jarduteko barne-protokoloa, haurrak arrisku egoeran edo babesgabezia egoeran daudenerako

Haurren babesgabeziari aurrea hartzeko ekimenak sustatzea garrantzizkoa denez, ahulezia-egoeran eta/edo tratu txar arina izateko arriskuan dauden adingabekoen Pasaiaiko familiei laguntza ematea du helburu proiektuak. Hartara, Gaitzen programa adingabekoei zuzendutako egungo zerbitzua osatzeko sortu da, bide batez, gurasoen beharrei erantzuna emateko eta haien zailtasunak lantzeko. Haurren garapen positiboa gurasoen jokabide egokiekin harreman estuan dagoela jabetuta, Gaitzen programaren izaera prebentziozkoa da, tratu txarren egoerak ez areagotzeko, eta ahal izanez gero, desagertzeko.

Horrenbestez, helburuak beteko badira, behar-beharrezkoa da aurretik kasuaren plana egitea, eta programan diharduten profesionalen artean elkarlanean aritzea: Gaitzeneko teknikariak, kale-hezitzaileak eta kasuaren koordinatzailea.

Programaren arlorik garrantzizkoena taldekakoa izatea da. Banan-banako esku-hartzeekin alderatuta, taldean lantzean antzeko eskarmentuak partekatzen dira, eta banan-banako eta taldearen hausnarketa bultzatzeaz gain, baliabideak ugaritzen dira. Halaber, aukera ematen zaie taldearen testuinguruaren bitartez, gurasoei gizarte-laguntzarako sarea izateko, uste izatekoa denez, murrizta izan ohi delako. Alde horretatik, taldearen kohesioa bultzatze aldera, eta taldeko partaide izateko sentimendua indartze aldera, taldearen iritzia izan behar da kontuan, arlo hauetan eragiteko: landu beharreko gaietan, parte-hartzaile berriak hartzean, etab.

Taldearen izaeraz gain, Gaitzen Programaren ezaugarria da talde nahiko irekia izatea, guraso gehiagok izango baitute sartzeko aukera, behin Gizarte Ekintza Sailak aldeko txostena egin ondoren. Hala ere, lantaldea ez da 14 lagunekoa baino gehiagokoa izango.

Taldea familiekin eta taldeekin arituak diren bi terapeuta espezializatuk dinamizatua dago. Parte-hartzaile guztiek konpromisoa hartzen dute saioetako edukia ez zabaltzeko. Helburu horretarako isilpekotasun-hitzarmena sinatzen dute. Aldi berean, ahalik eta guraso gehienak bertara daitezten, kalitateko edukia jasotzen dute saioek dirauten bi orduetan. Horretarako, Udalak kontratatu duen zerbitzua aritzen da lankidetzan.

Programaren ezaugarriak

- Udalaren erantzukizuna:
- Espezifikoa, egoera ahulean edo arrisku arinean dauden adingabekoen gurasoei zuzenduta.
- Teknikoa, pertsonalizatua eta egokitua. Estrategia profesionalen bilduma da, eta prestakuntza tekniko ugaria (diziplina artekoa) eskatzen du, gurasoen egoerei eta eskaerei erantzun egokiak

Jarduteko barne-protokoloa, haurrak arrisku egoeran edo babesgabezia egoeran daudenerako

emateko.

- Prebentiboa. Arrisku-egoerei aurrea hartu nahi zaie, eta egoera horiek eta instituzionalizazioak geldiarazi nahi dira.
- Eskarmentuan eta parte-hartzean oinarri duena. Trebezien optimizazioa gizarte- eta kultura-ikaskuntzaren testuinguruan kokatzen da, eta norberaren eskarmentuak, taldekideen parte-hartzeak, eta bizimoduaren praktikak eta sor litezkeen arazo eta zailtasunek kontzeptualizatzeko balio izango dute.
- Malgua eta nahiko irekia. Parte-hartzaileek eskarmentuak kontatuko dituzte, eta elkarrekin helburuak eta ondorioak hitzartuko dituzte. Halaber, taldean gai zehatzak landuko direnez, programa irekita egongo da kide gehiago hartzeko, betiere, gizarte-laguntzaileek, taldeak eta profesionalek oniritzia ematen badute.
- Ebaluagarria. Egoera espezifikoak aztertu egiten dira, oinarria duten ondorioak eskura daitezen, etengabeen balorazioa egin dadin eta, azkenean, esku hartu dadin.

Programaren helburuak

- Babesgabeziako edo arrisku arineko egoerak saihestea, arrisku ertain, larri edo babesgabetasun egoerak izan ez daitezen.
- Gurasoen eskura jartzea jarraibide hezitzaileak, eta tresnak eta baliabideak, erantzun ugari izan ditzaten eta gurasoen ahalmenak eta gurasoen rola sendotu dadin.
- Sozializatorako, elkarreraginerako eta komunitatean gizarteratzeko baliagarriak diren taldeko eskarmentuak garatzea, lehendik dituzten gizarte-trebeziak hobetzeko eta gizarte-sare formal eta informalak zabal daitezen.

4.4. Arrisku egoeran eta/edo babesgabezia egoeran dauden haurren balorazioa egiteko programa

Balorazio programaren helburua hau da: Pasaia Udalaren Gizarte Ekintza Saileko jardunbideak hobetzea, erraztea eta dinamizatzea, arrisku egoeran eta/edo babesgabezia egoeran dauden haurrak eta nerabeak artatzeko.

Helburu horretaz gain, programan jarraian aipatzen diren helburu nagusi eta espezifiko hauek proposatzen dira:

Jarduteko barne-protokoloa, haurrak arrisku egoeran edo babesgabezia egoeran daudenerako

Helburu orokorrak:

- Aholkuak eta laguntza ematea Pasaiaiko Udalaren Gizarte Ekintza Sailari eta profesionalei, haurren babeserako gaietan.
- Administrazio publikoak egoki jardun dezan prozedura teknikoak ezartzea eta inplementatzea, haurren babesean bere eskumenekoak diren kasuak artatzeko. Halaber, erabiltzen diren baliabideak egokitzea.
- Saileko profesionalei prestakuntza ematea haurren babeserako gaietan eta haurtzaroaren gaian.
- Gipuzkoako Foru Aldundiak haurren babeserako gaietarako ezarritako prozedurak zehatzago ezagutzea.
- Urtero Pasaiaiko Udalaren Gizarte Ekintza Sailari ezagutzera ematea zerbitzu horretan artatzen diren kasuen deskripzio estatistikoa.

Helburu espezifikoak hauek dira:

- Pasaiaiko Udalaren Gizarte Ekintza Saileko gizarte-langileei aholkuak ematea, haurren arrisku edo babesgabezia egoeretatik eratoritzen diren kasuei dagokienez.
- Babesgabezia arin edo ertaineko kasu guztien ikerketa edo balorazioa egitea, haurren babesgabezia egoeretan jarduteko gidan ezarritako prozedurak eta epeak betez.
- Babesgabezia larriko kasu guztien ikerketa edo balorazioa egitea, haurren babesgabezia egoeretan jarduteko, gidan ezarritako prozedurak eta epeak betez.
- Kasuaren plana izeneko prozedura ezartzea larritasun arin edo ertainekoak diren eta familiaren esku-hartzea edo sailaren jarraipena behar duten kasu guztietan, behin balorazioa edo ikerketa egin eta gero.
- Sailean artatutako eta Aldundiko Zerbitzura bideratutako kasuei buruzko txosten zehatza (urteko memoria) eskaintzea, bertan agertzen direla honako hauek: artatutako familiaren ezaugarriak, babesgabezia maila, beharrezkoa den baliabidea, beharrezkoa den denbora...
- Pasaiaiko Udalaren Gizarte Ekintza Sailak eskatuta, jardunaldiak antolatzea, haurren babesaren gaiari dagozkion arlo teknikoak lantzeko (adibidez, kasuaren planak egitea, arrisku-faktoreak, egonezin emozionala agertzen duten adierazleak, etab.)
- Saileko profesionalei etengabeko prestakuntza ematea aholkularitzaren bitartez.

Jarduteko barne-protokoloa, haurrak arrisku egoeran edo babesgabezia egoeran daudenerako

- Pasaia Udaleko gizarte-langileak prozedura teknikoa egitea proposatzen duenean, haren berraztertze teknikoa egiteko aukera ematea.
- Haurren kasuekin eta haurren babesgabeziako kasuekin lanean diharduten profesionalak, zehatz ezagutu behar dituzte eskualdeko taldeen bitartez, Foru Aldundiak ezartzen dituen protokoloak eta prozedurak. Hala ere, bereziki landuko da babesgabeziako balizko kasuen hasierako ikerketako protokoloa.

Helburuak lortzearren programan zerbitzu ugari daude: ikerketa, ebaluazioa, balorazioa (ikerketa + balorazioa), aholkularitza-zerbitzua edo gainbegiratze-zerbitzua eta prestakuntza-zerbitzua.

1) Ikerketa-zerbitzua:

Haurren Babeserako Zerbitzuak haur bat babesgabezia egoeran egon litekeela adierazten duen jakinarazpena jaso ondoren dator ikerketa aldia. Ikerketaren helburuak hauek dira: 1. Babesgabezia egoerarik ba ote dagoen egiaztatzea. 2. Larritasuna balioestea, eta egoera errepika ote daitekeen adieraztea. Halaber, haurraren osasuna edo bizitza arriskuan egon ote litezkeen adieraztea. Eta 3. Berehalako babes-neurriak hartu behar ote diren balioestea, eta beharrik izanez gero, neurriak hartzea.

2) Ebaluaziorako eta baloraziorako zerbitzua

Babesgabezia egoerarik egon ote litekeen ebaluazioa egiteko ezinbestekoa da ikerketa egitea. Hortaz, balorazioaren barruan bi eginkizun batzen dira, ikerketa eta ebaluazioa. Aurreko puntuan ikerketaren deskripzioa egin denez, puntu honetan ebaluazioaren deskribapena egingo da, balorazioa egiteko beharrezkoa dena.

Helburuak hauek dira: 1. Arrisku eta babesgabeziaren jatorriarekin zerikusia izan dezakeen gizabanako-, familia- eta gizarte-faktoreak identifikatu, baita banakoaren alderdi positiboak ere; 2. Haurraren garapen fisiko, kognitibo, psikologiko eta/edo sozialean arrisku egoeraren edo babesgabezia egoeraren ondorioak zeintzuk izan diren balioestea; 3. Familiaren eta haurraren tratamendurako beharrak zeintzuk diren zehaztea; 4. Babesgabezia kasuetan gurasoak/legezko arduradunak gaitzeko pronostikoa zehaztea.

3) Aholkularitza eta gainbegiratze zerbitzua

Programa honek Pasaia Udaleko Gizarte Ekintza Saileko gizarte-langileei aholkua emateko eta gainbegiratze-lana egiteko aukera ematen die, haurrak arrisku-egoeran daudenerako. Euren eginkizunetarako gizarte-langileen lan-prozesu osorako eskaintzen da gainbegiratzea eta

Jarduteko barne-protokoloa, haurrak arrisku egoeran edo babes gabezia egoeran daudenerako

aholkularitza. Beraz, kasuaren jakinarazpena denean, ikerketa denean, balorazioa denean edo familiaren esku-hartzearen prozesuan egin liteke ikuskapena eta jaso liteke aholkularitza.

4) Prestakuntzarako zerbitzua

Proiektu hau Pasaiako Udalaren Gizarte Ekintza Sailari haurren babeserako gaien prestakuntza-zerbitzua eskaintzeko diseinatu da. Prestakuntza bi modutara eman daiteke: a) Prestakuntza egituratua, haurren babesari buruzko galdera zehatzen gaitegia emanda, eta b) Prestakuntza ez egituratua, izan ere aholkularitza zerbitzuaren ustean, zalantzak argituz, ikuskatuz eta lagunduz prestatzen ari dira saileko profesionalak.

Zerbitzuak ezaugarri hauek ditu:

- Pasaiako Udalaren Gizarte Ekintza Saileko beharretara eta ezaugarrietara egokitutako zerbitzua.
- Prestakuntza egituratua Pasaiako Udalaren Gizarte Ekintza Sailaren eskaerari jarraiki emango da, interesgarritzat jotzen diren gaiak aintzat hartuta.
- Haurren babeserako gaietan ezagupenak dituen eta prestakuntza arloan eskarmentua duen profesional batek emango du prestakuntza.
- Profesionalak ezin duenerako, kanpoko profesionalak bilatzeko laguntza emango da, saileko prestakuntza-beharrei erantzute aldera.

Azkenik, programa honetan zehazten denez, programaren beraren barne ebaluazioa egitea jasota dago. Zehazki, proiektuaren ebaluazio-sistema honen bitartez, honako hauek jaso ahal izango dira: a) Proiektua hobetzeko beharren detekzioa eta zuzenketa; b) Garapenari buruzko informazioa izatea; eta c) Lan-prozesuak aztertzea, ahalik eta objektiboan.

Horretarako, helburu hauek proposatzen dira:

- Proiektuaren garapenari buruzko informazioa jasotzeko eta aztertzeko modu bat ezartzea, jarraian aipatzen diren aukerak jasotzen direla:
 - Egiten diren jarduketan kalitatea etengabe hobetzeko prozesua ezartzea.
 - Gizarte Ekintza Sailak informazioa izatea, esku hartzen ari den herritar klaseari buruzkoa eta garatzen diren lan-prozesuei buruzkoa.
 - Pasaiako Udalaren Gizarte Ekintza Sailarentzat urtero txostena egitea, aurretik aipatutako informazioa jasota.

Jarduteko barne-protokoloa, haurrak arrisku egoeran edo babesgabezia egoeran daudenerako

4.5. Familian esku hartzeko programak.

Babesgabetasun ertaina izateko arrisku-egoeran dauden adingabekoen familiei aukera ematen die Pasaiaiko Udalak familian esku hartzeko programetan parte hartzeko, Gizarte Ekintza Sailak familien eskura jarri eta gero.

Aldi berean, sailaren irizpidearen arabera, sailak aztertu egingo du babesgabetasun arinerako arrisku-egoeretan esku hartuko ote duen eta banan-banako esku-hartzerik behar ote den. Horretarako kontuan izango ditu familiaren ezaugarriak eta esku-hartzeak zer eragin izan ote lezakeen.

Segidan zerrendatuko dira esku-hartzearen helburuekin bat datozen programak, esku-hartzeetarako aurreikusten diren orduak, eta esku hartuko duten familiei buruzko informazioa.

1 Esku-hartzearen balorazioa

Helburuak:

- Kasuaren ikerketa osatzea, babesgabezia larri edo arinaren susmoa oinarritua izanda ere, ezin izan denean egiaztatu edo gezurtatu.

- Gurasoen eskumenen ebaluazioa egitea.

- Gurasoen gaikuntzari buruzko ebaluazioaren ondorioak zalantzazkoak edo ezkorrak direnean, esku-hartze azkar bat egitea, pronostikoa argitzeko, egiaztatzeko edo gezurtatzeko.

Iraupena:

- Sei hilabete, gehienez.

Familia hartzaileak:

- Ikerketa aldian ezin izan denean babesgabeziarik egiaztatu edo gezurtatu, nahiz eta susmoa dagoen babesgabezia larria dagoela.

- Ikerketa aldian ezin izan denean babesgabeziarik ote dagoen egiaztatu edo gezurtatu, nahiz eta susmoa dagoen babesgabezia ertaina dagoela, eta ustea dagoenean babesgabezia egiaztatzeko gizarte-sare komunitariorik egiten den jarraipena ez dela nahikoa izango, izan ere profesional espezializatuen beharra estimatzen da, eta familiarekin hurbil eta jarraikortasunez informazioa eskuratzen egon beharra dago.

- Gurasoen rola betetzen hasten diren helduen kasuak, a) adingabekoarekin elkarbizitzen hasi berriak direlako, edo b) adingabekoarekin denbora luzean elkarbizitzen egon

Jarduteko barne-protokoloa, haurrak arrisku egoeran edo babesgabezia egoeran daudenerako

gabe, berriro ere elkarbizitzen hasten direlako, eta zalantza argiak daudelako zailtasunak dituztela guraso eginkizunak egoki betetzeko.

- Gurasoen gaikuntzari buruzko balorazioaren ondorioak zalantzakakoak edo ezkorrak direnean, eta beharrezkotzat jotzen denean pronostikoa argitzea, egiaztatzea edo gezurtatzea, hartara, kasuaren plana egoki egin dadin.

2 Gurasoak arazoez jabetzen ote diren eta aldaketarako prest ote dauden:

Helburuak:

1 Gurasoengan edo legezko arduradunengan eragitea, zailtasunak dituztela kontura daitezen, eta prest ager daitezen aldaketarako prozesuari ekiteko, eta onar dezaten haien eta familiaren tratamendurako eta laguntzarako zerbitzuak behar dituztela.

2 Guraso edo legezko arduradunek ez dutenean tratamendurako edo laguntzarako zerbitzurik onartzen, seme-alaben zailtasunei buruzko kontzientzia sorraraztea eta haiek beharrezko dituzten tratamendurako edo laguntzarako zerbitzuak onartzea.

Iraupena:

- Sei hilabete, gehienez.

Ezaugarriak:

- Helburua betetzat joko da gurasoek edo legezko arduradunek onartzen dituztenean tratamendurako edo laguntzarako beharrezkoak diren zerbitzuak, nahiz eta arazoaren kontzientzia partziala duten, edo aldaketarako motibazioa ez den izan litekeen egokiena.

- Tratamendurako edo laguntzarako zerbitzuak haurrentzako zerbitzu espezifikokoak edo zerbitzu komunitarioak (esaterako, toxikomania edo alkoholismoa tratatzeko programak, buruko osasun-sarerako sarbidea, etab) izan litezke.

3 Familiaren zaintzarako programa: gurasoen gaikuntza:

Helburuak:

1 Gurasoak edo legezko arduradunak gurasoen rola egoki betetzeko gaitzea.

2 Babesgabezia egoerari amaiera ematea; familia-unitatea mantentzea; adingabeak familiarengandik zaintza egokia izan dezan berme ematea; eta etorkizunean babesgabezia egoera berriro gerta ez dadin ahaleginak egitea edo egoera hori berriro gerta ez dadin arriskua gutxitzea.

10 Babesgabezia egoerak adingabearengan eragin dituen ondorioak sendatzea.

Iraupena:

Jarduteko barne-protokoloa, haurrak arrisku egoeran edo babesgabezia egoeran daudenerako

- Gehienez, bi urteko iraupena, sei hilean behin egiten den kasuaren planaren ikuskapena barne.

- **Familia hartzaileak:**

- Gurasoen erantzukizuna bere gain hartuko duen heldu bat badago, haren familiari zuzenduta dago programa hau, eta a) tratu txarra eragiten duen arrazoia edo gurasoen zabarkeria familia-tratamenduaren bitartez zuzentzeko aukera badagoela balioetsi da, eta b) seme-alabak egoki zaintzeko gurasoek dituzten mugak edo eragozpenak konpontzeko aukera badagoela balioetsi da.

- Adingabekoaren guraso edo legezko arduradunek programan parte hartzeko baimena eman dute, hau da, proposatutako jardueretan profesionalekin elkarlanean aritzeko prest agertu dira (bisitak hezitzailearen etxebizitzan, saioak psikologoarekin...).

4 Adingabekoentzako berariazko laguntza

Helburuak:

- Familiako adingabekoari edo adingabekoei laguntza espezifikoa edo banan-banakoa ematea da esku-hartzearen funtsa, baliabideak eskura jarritz, profesional espezializatuekin. Guraso eta tutoreekin esku hartu liteke eta aldatzeko helburuak lan litezke; eta esku-hartzea garrantzizkoa izango da, nahiz eta aurrekoaren aldean bigarren mailakoa izango den.

- Adingabekoari behar adina baliabide eta laguntza jarri eskura, garapen egokia izan dezan, nahiz eta familia-ingurune disfuntzionalean bizi den, "erresilientzia".

- Babesgabezia egoerak adingabekoarengan eragin dituen ondorioak sendatzea.

- **Iraupena:**

- Mugarik gabe. Gehienez ere sei hilean behin berraztertuko da kasuaren plana.

- **Familia hartzaileak:**

- Babesgabezia ertaineko arazoak dituzten familientzat da eta, berez, gurasoak gaitzeko programan hartu beharko lukete parte, baina a) ahalegina egin bada ere, ez dute onartzen; b) behar baino lehen utzi diote joateri; edo c) parte hartu badute ere, ez dira helburuak lortu, eta ez da komenigarritzat jotzen esku-hartzearekin jarraitzea. Ezin da familia ingurua eta gurasoen jokabidea aldatu -arin ez bada-, eta egoera ez da Foru Aldundira bideratzeko bezain larria.

- Familiarekin helburu batzuk landu badaitezke ere, bigarren mailakoak eta mugatuak dira. Esku-hartzearen ardatza haurra da, eta helburuak honako hauek dira:

Jarduteko barne-protokoloa, haurrak arrisku egoeran edo babesgabezia egoeran daudenerako

- Babesgabeziaren aztarnak sendatzea.
- Erresilientziarekin harremana duten ezaugarriak sendotzea, adingabeakoren garapenarekin batera.

5 Haurraren eta familiaren egoeran lagundu, jarraipena egin eta kontrola eraman:

- **Helburuak –berez ez dago aldaketarako esku-hartzerik-**
 - Familia zaintzeko programan parte hartu ondoren, lortutako aldaketen egonkortasunari buruzko ebaluazioa egitea.
 - Aldaketa horiek indartzea, eta aldaketak egin ondorengo egoerari eusteko trinkoa ez den esku-hartzea egitea.
 - Haurren zaintzan eragin okerra izan dezakeen egoerari garaiz aurre hartzea.
- **Iraupena:**
 - Hasiera batean sei hilabete, mugarik gabeko luzapena izan dezake, kasuaren arduradun den gizarte-laguntzaileak hala proposatuz gero.
- **Familia hartzaileak:**
 - Gurasoak gaitzeko programaren parte-hartzea bukatu duten familiak, baina jarraipena behar dutenak, lortutako aldaketak egonkorak ote diren balioesteko, edo aldaketak indartzeko eta mantendu daitezkeen laguntza emateko.
 - Babesgabezia ertaineko arazoak dituzten familiak, familia zaintzeko programa edo adingabeakorentzako laguntza espezifikoaren programa behar dutenak, eta hainbat arrazoiengatik, ezin izan dutenak jaso.

5. HAURRAK ARRISKU ETA/EDO BABES GABEZIA EGOERETAN DAUDENERAKO ESKU-HARTZE PROZESUA

5.1. Haurrak babes arrisku edo babesgabezia egoeretan daudenerako esku-hartze prozesuaren eskema orokorra

Pasaiaiko Udalaren Gizarte Ekintza Sailak, GFAREN jarduteko gidari eta Balora dekretuari jarraiki, jarduteko prozesua landu du, eta Pasaiaiko udalerrian arrisku edo babesgabezia egoeran dauden hurrekin eta nerabeekin esku hartzeko prozesuaren aldi guzti-guztiak jasotzen ditu. Jarduteko prozesu hau honela jasotzen da, laburbilduz, flujograma honetan:

Jarduteko barne-protokoloa, haurrak arrisku egoeran edo babesgabezia egoeran daudenerako

5.1. Detekzioa eta jakinarazpena

Babesgabezia egoeran dauden adingabekoen kasuak detektatzea eta jasotzea oinarrizko gizarte zerbitzuen ardura da nagusiki. Oinarrizko gizarte zerbitzuen helburua da gizartea sensibilizatzeko eta prestatzeko planak prestatzea, detekzioa eta jakinarazpena garaiz egin daitezen.

Jarduerak profesionalen taldeentzat eta herritarrentzat egiten dira. Kanpainetan lehenetsuneko izaten da zerbitzu komunitarioen (osasuna, hezkuntza, polizia, etab.) prestakuntza eta konpromisoa, haien eginkizunaren bitartez, komunitateko familiekin harreman estuan daudelako, eta tratu txarraren eta haurren abandonuaren detekzioa egiteko eragile nagusiak direlako.

a0 Detekzioa

Detekzioaren bidez aditzera ematen da haurren babesgabezia egoera egon litekeela, eta egoera identifikatu eta ezagutu egiten dela.

Asturiaseko Printzerriaren Gobernuko haurren babeserako eskuliburuaren arabera, babesgabezia egoeran dagoen adingabeko batek babesa jaso dezan, eta haren familiak beharrezko laguntza jaso dezan norbaitek aurretik konturatu behar du babesgabezia-egoera gertatzen ari dela.

Prebentzioa egiten ari dela egingo da detekzioa, arrisku-egoera garaiz detektatuz gero, neurriak jarraituz detektatutako egoerak okerrera egin ez dezan. Arrisku egoerak garaiz detektatzea ezinbestekoa da. Zenbat eta beranduago detektatu kasua, orduan eta larriagoak dira jasotako tratu txarrak eragindako ondorio fisikoak, emozionalak edo sozialak. Kontuan izan beharrezkoa da jasandako kaltea zenbat eta kronikoagoa izan, orduan eta zailagoa dela adingabekoa indarberritzea.

Horren harira, Andaluziako Juntak arrisku psikosozialen ebaluazioari buruz argitaratutako liburuan jasotakoaren arabera, herritar guztien elkarlana behar da, bereziki, haurren eta familien inguru hurbilarena, eta haiekin harremana duten profesionalena, informazioa eskura jartzeko.

Jarduteko barne-protokoloa, haurrak arrisku egoeran edo babesgabezia egoeran daudenerako

Detekzioaren helburuak:

- Gizarte-eragileen (herritarrak, profesionalak eta zerbitzu komunitarioak) sarea osatzea eta mantentzea, eta harekin elkarlanean aritzea, detekzioaren alde eten gabe lanean aritzeko.

- Egoera zailak, egoera psikosozial zailak edo estresa jasaten ari diren adingabekoen eta familien aurretiazko identifikazioa egitea, izan ere, tratu txarra edo abandonua jasateko arriskuan egon litezke.

- Babesgabezia egoeran dauden adingabeko guztiak identifikatzea.

Azken batean, haurren eta/edo nerabearen, eta guraso eta zaintzaile nagusien adierazle fisiko eta jokabidezkoak identifikatu behar dira, arrisku-egoera edo babesgabezia-egoera egon ote litekeen susmoa dagoenean.

b0 Jakinarazpena

Haurren tratu txarra detektatzeko, jakinarazteko eta bideratzeko Aragoiko gizarte zerbitzuetako aragoiar institutuko gidan jasotakoaren arabera, haurren babesgabezia egoera izan litekeenari buruzko informazioa ematea da jakinaraztea, zehatz-mehatz, ustez tratu txarra jasotzen ari den adingabekoari, familiakoari eta informazio-emaileari buruzko informazioa ematea.

Bai herritarrentzat, bai familiarekin eta adingabekoarekin diharduten profesionalentzat arrisku-egoeraren berri emateak egoeraren kontzientzia hartzea eta konponbiderako bidea jartzea dakar.

Haurren babesgabeziako kasua jakinaraztea bereziki da erantzukizuneko ekintza eta adingabekoa babesteko ekintza. Haurri edo nerabeari zer sumatzen zaion, horri buruzko informazioa gizarte zerbitzuetara helaraztea da. Haur bat babesgabezia-egoeran egon litekeela jakinarazteko ez da beharrezkoa gertatzen ari denari buruzko erabateko ziurtasuna izatea. Nahikoa da arrazoizko susmoa izatea. Susmo horien oinarrian adierazle fisikoak nahiz jokabidezko adierazleak egon litezke.

Gertaera horien berri izateko prozeduran hiru maila bereiztea garrantzizkoa da, detekziorako iturri edo eragileei dagokienez.

- Komunikatzaileak, edo haien ezaugarriak kontuan izanda, herritar, bizilagun, adingabekoaren familiareteko edo adingabeko direnek anonimotasunean agintedunei edo gizarte zerbitzuetako profesionaleri babesgabeziako egoera zehatzaren berri ematen diete. Haien euren

Jarduteko barne-protokoloa, haurrak arrisku egoeran edo babesgabezia egoeran daudenerako

betebeharra betetzen dute, gertakarien berri emanez, eta ezin zaie jarduketa gehiagorik eskatu, hiritarrei elkarlanerako dagokien betebeharra baino.

- Jakinarazleak, edo haien betekizuna kontuan hartuta, profesional direnei, edo osasun-zerbitzuetako, herri-administrazioiko eta hezkuntza-zerbitzuetako eragile direnek ezinbestean bete behar dute jakinarazpen formal bat (oharra, parte, argitze-agiria), oro har, bide eta prozedura arautuak erabilita. Halaber, jakinarazitako kasuak egiaztatzeko, identifikatzeko edo deskribatzeko datu gehiago eska dakieke.

- Informatzaileak, edo haien funtzioak, espezialitatea edo ardura kontuan izanda (arlotan guztietako gizarte-langileak, oinarrizko gizarte zerbitzuetako profesionalak, haurrekin eta familiekin harremana duten arlotan zehaztutako teknikariak), prestakuntza eta eskumena dutenak, eta ondorioz, txosten teknikoak egin beharra dutenak, eta txostenetan arrisku-egoerari buruzko iritziak eta balorazioak jasotzen dituztenak. Horrenbestez, formalki jakinarazten dute haurren babeserako zerbitzuan.

Eskumenak

Gipuzkoako udaletako eta eskualdeetako gizarte zerbitzuek arrisku-egoeran edo babesgabezia-egoeran dauden 18 urtetik beherako jakinarazpen, komunikazio eta salaketa guztiak jasoko dituzte, Gipuzkoako udalerriren batean edo lurralde historikoan aldi baterako edo modu egonkorrean baldin badaude (kontuan hartzen dira pasadizokoak, legez kanpoko bizilekua dutenak, etab.)

Jakinarazpen eta komunikazio guztiak artatuko dira, edozein modutara eginda daudela ere (aurrez aurre, telefonoz, idatziz), eta informatzailea identifikatuta ez badago ere (nahiz eta ez diren bultzatuko jakinarazpen anonimoak).

5.3. Kasuaren berri izatea

Haur bat arrisku- edo babesgabezia-egoeran dagoen susmoa jasotzeak adierazten du haurren babes sistemaren artean eta herriaren artean harremana badela.

Aldi honetan babesgabezia-egoera izan litekeena detektatu beharra dago, segidan, gizarte zerbitzuetan jakinarazteko. Beraz, egoeraren ezagutza egokia izatea estuki lotuta dago detekzio ona egitearekin, segidan, jakinarazpen egokia egiteko.

Aldi honetan berehalako erantzuna eman behar zaio arrisku-egoeraren berri gizarte

Jarduteko barne-protokoloa, haurrak arrisku egoeran edo babesgabezia egoeran daudenerako

zerbitzuetan eman nahi duenari.

Egingo den esku-hartzea nolakoa, halakoa izango da jakinarazlearen irudipena, haurren babeserako arloan diharduten profesionalen profesionaltasun, eskarmentu eta eraginkortasunari buruz. Hortaz, informazio-emaileari egoki erantzutea garrantzizkoa da, ez bakarrik jakinarazten den kasuari begira, baita zeharka beste profesional batzuek edo herritarrek jakinarazpena egin dezaten.

a) Oinarrizko gizarte zerbitzuen eskumena, haurren arrisku eta/edo babesgabezia egoeretako kasuen ezagutza denerako.

Oro har, udaleko gizarte zerbitzuetan izaten da kasuaren berri, lurraldeko gizarte zerbitzuetan jasotzen diren kasuena izan ezik¹.

b) Helburuak kasuaren berri izaten denerako

1. Adingabeko bat arrisku-egoeran edo babesgabezia-egoeran egon litekeela adierazi nahi duen lagun, profesional edo erakundeari kasu egin behar zaio.

2 Zehaztu egin behar da jakinarazten den egoera gizarte zerbitzuari ote dagokion. Horrenbestez, beharrezkoa izango da eskura dagoen informazio guztia aztertzea, behin adingabekoaren espedienterik abiarazita ote dagoen egiaztatu eta gero.

c) Kasuaren berri izaten denerako jarduteko prozedura

1. Informazio-emailearen ahalik eta informaziorik gehien jasotzea.
2. Zerbitzuan espedienterik abiarazita ote dagoen egiaztatzea.
3. Eskura duten informazioarekin, jakinarazi den egoera udalaren gizarte zerbitzuen eskumenekoa izan ote litekeen aztertzea. Hartara, zehaztu ahal izango dira honako hauek:

a) Zerbitzuak ez du kasua bere gain hartuko, babes berezia behar duen haur baten kasua ez delakoan.

b) Ez da ikerketarik egingo, babes berezia behar duen haur baten kasua ez delakoan;

1

Berehalako babesa behar den kasuetan; aurretik Aldundian espedientea irekita dagoenean; bakarrik dauden adingabeko atzerritarrak; sexu-abusuaren susmoa dagoenean, eta abusuaren adierazle espezifikoak daudenean; udalerrian errotzerik gabeko familiak direnean.

Jarduteko barne-protokoloa, haurrak arrisku egoeran edo babesgabezia egoeran daudenerako

baina familian beste behar eta arazo batzuk daudenez, zerbitzuko beste atal batera eramango da kasua.

c) Udaleko gizarte zerbitzuek kasua bere gain hartuko dute, kasua babes berezikoa delakoan, eta ikerketari eta ebaluazioari ekingo zaie.

d) Kasua zuzenean Foru Aldundira bideratuko da.

10 Kasuaren ezagutza izan den unean, informazioa aztertuta, babes bereziko kasua dela balioesten bada:

a) Lehentasunezko zat hartuko da kasua. Haurra edo nerabea jasaten ari den minaren, edo haurrak edo nerabeak jasan dezakeen minaren larritasuna larria ote den aztertuta, lehenengo balorazioa egin eta, lehentasun maila zehaztuko da, eta abian jarri beharreko jarduketak eta epeak ezarriko dira.

b) Zerbitzuan espedientea abiaraziko da, bildutako informazio osoa jasotzeko.

Lehentasun maila. Ikerketa osatzeko epeak	
Lehenengo mailako lehentasuna (larrialdiko kasuak): Jasotako informazioaren arabera, haurraren oinarrizko osasun eta/edo segurtasun adierazleengatik haurra arriskuan egon liteke, eta ez dago aurkakorik dioen beste informaziorik.	ikerketaren berehalako hasiera. Bukaera, gehienez ere, hiru egunetan.
Bigarren mailako lehentasuna: babesgabezia-egoerari buruz jasotako informazioa ez dago osatuta, baina eskura dagoen informazioaren arabera, haurraren edo haurren oinarrizko osasun edo segurtasun adierazleek ez dute adierazten haiek arrisku gogorrean daudenik.	Kasuaren berri denetik, gehienez ere, lau asteko epea ikerketa egiteko.

Jarduteko barne-protokoloa, haurrak arrisku egoeran edo babesgabezia egoeran daudenerako

<p>Hirugarren mailako lehentasuna (zuzenean ebaluazioa egitea edo esku-hartzearen ebaluazioa egitea): babesgabeziaren kasu berri izan denean jasotako informazioa osatuta dago, eta datu fidagarriak dauden osasun eta/edo segurtasun arloetako oinarrizkoak bermatuta daude.</p>	<p>Ez da beharrezkoa ikerketa egitea. Kasua zuzenean pasako da ebaluazioa egitera (kasuaren berri izan, eta gehienez ere lau astetan hasiko da) edo esku-hartzearen balorazioa egitera.</p>
--	--

Jasotako informazioa harrera-protokoloan jasoko da.

d) Larrialdietako egoerak

Lehen mailako lehentasunezko zatitako egoerak haurraren osasunerako eta bizitzarako arrisku hurbilekoak izan litezke, eta berehalako babes-neurria beharrezkoa izan liteke egoera horiei aurre egiteko. Lehentasunezko zatitako egoerak jasota daude, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Haurrak babes gabeko egoeretan jarduteko gidaren 31., 32., eta 33. orrialdeetan.

e) Beste zerbitzu batzuetara bideratzea

Kasua beste zerbitzu batzuetara bideratzen denean, argi agertuko dira bideratzearen arrazoiak. Zerbitzura kasuaren harrera-protokoloaren agiria helaraziko da.

f) Harremana informazio-emailearekin.

Hasierako informazio-emailea profesionala izan edo ez izan, komeni da udaleko gizarte zerbitzuek ahoz edo idatziz familia artatuta dagoela adieraztea, eta eskerrak ematea adingabearen alde azaldutako interesagatik eta zerbitzuan elkarlanean aritzeagatik.

Gertakari hori, hala ere, haurraren eta familiaren intimitatea errespetatzen dela egingo da, betiere, informazioa isilpean mantentzen dela.

5.4. Ikerketa

Ikerketa aldi berean bermatu nahi da hartzen diren erabakiak ongi arrazoituta daudela. Aldi honek arina, eraginkorra eta ongi egituratua izan behar du, akatsak ekiditeko eta familiei prozesu traumatikorik ez pasarazteko.

a) Helburuak:

Jarduteko barne-protokoloa, haurrak arrisku egoeran edo babesgabezia egoeran daudenerako

1. - Babesgabezia egoera badagoela egiaztatzea.
2. - Larritasunaren balorazioa egitea; berriro gertatu ote daitekeen aztertzea, eta haurren edo nerabearen osasuna edo bizia arriskuan ote dagoen aztertzea.
3. - Larrialdiko babes-neurriak hartu behar ote diren aztertzea, eta beharrik izanez gero, hartzea.

Beraz, ikerketa aldiar arazorik ba ote dagoen jarri behar da arreta; ez, ordea, kausetan eta tratatzeko eretan.

b) Eskumenak:

Ikerketa udaletako gizarte zerbitzuen ardura da, honako hauetan izan ezik:

- a) Foru Aldundiari zuzenean jakinarazitako kasuak, babesgabezia larriko egoera dagoela ematen duenean, babesgabeziari aurre egiteko berehalako jarduketa beharrezkoa denean.
- b) Babeserako espedientea Foru Aldundian abiarazita duten kasuak.
- c) Bakarrik dauden adingabeko atzerritarrak.
- d) Sexu-abusuko berariazko adierazleak agertzen dituzten kasuak.
- e) Lurraldeko udalerrietan errotzerik agertzen ez duten familiei buruzko jakinarazpenak, Foru Aldundian ikertzeokoak.

c) Ikerketa honako kasu hauetan egin beharko da:

- a) Adingabeko bat gurasoengandik edo legezko arduradunengandik tratatu desegokia jasotzen ari delako informazioa dagoen kasu guztietan.
- b) Adingabeko bat beste heldu edo adingabeko batzuegandik erasoak jasotzen egon litekeelako susmoa dagoenean, eta guraso edo legezko arduradunak gai ez direnean edo guraso edo legezko arduradunek babesteko zailtasunak dituztenean.
- c) Eskola absentismoa maiztasunez gertatzen denean edo ohikoa denean.

Hiru kasuetan, harrera aldiar jasota dagoen legez, ikerketa egiteko denbora kasuaren lehentasunaren mailaren arabera egingo da.

Alabaina, kasu batzuetan ez da beharrezkoa izango ikerketa egitea, baina jaso beharra egongo da adingabekoen zaintzaren mailari buruzko informazioa eta haiek jasotako arretari buruzko informazioa. Beharrik izanez gero, ikerketa egitea beharrezkotzat joko da honako hauetan:

- Familian, eskolan eta/edo gizartean egokitze arazo esanguratsuak dituzten adingabekoen informazioa dagoenean, eta udaletako gizarte zerbitzuetan ezagunak diren kasuetan edo detektatu diren kasuetan.

Jarduteko barne-protokoloa, haurrak arrisku egoeran edo babesgabezia egoeran daudenerako

- Udaletako gizarte zerbitzuek artatutako familiak, jarraian aipatzen diren ezaugarriak edo arrisku faktoreak dituztenak:

- Aurretik babesgabezia behar izan duten seme-alaben gurasoak, orain berriro guraso direnak.
- Buruko osasuneko arazoak, egonezin emozionalaren sintomak, ezegonkortasun emozionala edo heldutasun falta duten gurasoak.
- Aurretik babesgabezia behar izan duten gazteak, seme edo alabaren bat izan dutenak eta zailtasunak dituztenak gurasoen rola egoki betetzeko.
- Ahalmen intelektual mugatuko gurasoak.
- Alkohol, droga edo botika gehiegi hartzen duten gurasoak; edo gehiegi hartzen dutelako susmoa dagoenean.
- Guraso gazteak, laguntzarik ez dutenak.
- Seme-alabei mugak ezartzeko eta haiek egoki ikuskatzeko zailtasun handiak dituzten gurasoak.
- Etxeko indarkeria agertzen duten familiak.
- Familietako helduek jarduera marjinaletan edo legez kontrakoetan esku hartzen dute.
- Jokabide oldarkorrek dituzten gurasoak.

d) Prozedura

Kasu guztietan ikerketaren lehenengo helburua datuak egiaztatzea izango da, eta argi zehaztea babesgabeziako egoera den ala ez. Ikerketaren prozesuan prozedura honi jarraituko zaio:

1.- Zerbitzuan kasuari buruz aurrekaririk ba ote dagoen aztertuko da.

2.- Larrialdietan teknikaria haurra edo familia dagoen tokian agertuko da, gertatutakoari buruzko informazio zuzena eskuratzeko eta haurraren egoerari buruzko balorazioa egiteko.

3.- Foru Aldundiko eta familia aurretik bizi izandako udaletako gizarte zerbitzuetako informazioa jasoko da, kasuaren espedienterik ote dagoen jakiteko, eta aurretik adingabekoen tratu txarren historiarik ba ote dagoen, eta tipologia eta larritasun maila zein diren, anai-arrebei eragin ote zien, abusu eragilearen identifikazioa zein den eta kasuari dagokionez, zer esku-hartze egin den. Garrantzizkoa da egiaztatu gabeko tratu txarren susmorik izan bada, informazioa jasotzea.

Jarduteko barne-protokoloa, haurrak arrisku egoeran edo babesgabezia egoeran daudenerako

4.- Ahal izanez gero, espedienteetako informazioa jaso eta gero, komeni da gurasoengana edo legez arduradun direnengana jotzea, ikerketa abiarazita dagoela esateko, informazio zuzena jasotzeko eta aurreikusten diren urratsei buruzko informazioa emateko. Haiek topatu ezin izan direnetan edo elkarrizketari uko egin izan diotenenetan bakarrik arrazoitu ahal izango da elkarrizketarik ez egitea, dagokion txostenean jaso ondoren.

Horren haritik, Pasaiaiko Udalaren ustean, garrantzizkoa da familiarekin (oro har, adingabekoaren edo adingabekoen guraso, tutore edo zaintzaileekin) **testuinguruan kokatzeko elkarrizketa bat egitea**, kasuarekin harremana duten familiarterako edo profesionalekin beste edozein harreman izan aurretik. Elkarrizketa egiteko helburu nagusia gurasoei informazio hau helaraztea eta argitzea da:

- Ardura duten profesionalen aurkezpena egitea (gizarte-langilea, baloraziorako programa, etab.)² Ikerketaren prozesuari ekiteko arrazoiak.

- Horrelako prozesu batek zerk dakarren; zenbat elkarrizketa egingo diren; prozesuaren iraupena...

- Ikerketa bukatu ondoren zer gerta litekeen.

- Komeni da testuinguruan kokatu eta gero, legezko arduradunek ikerketa onartzen dutela agertzen duten dokumentua sinatzea, ados baldin badaude; eta uko egiteko beste dokumentu bat sinatzea, ados ez badaude.

5.- Familiari eta haurraren egoerari buruzko informazioa eman dezaketen iturburu guztiei buruzko informazioa jasoko da: osasun-zerbitzuak, eskola, haurtzaindegia, polizia, etab. Pasaiaiko gizarte zerbitzuek beharrezkoa den guztietan idatziz eskatuko dute informazioa.

6.- Beharrezkoa bada, haurrari, edo tratu txar edo abandonuaren lekuko direnei eta familiarterako edo familiarren ezagun direnei ere egingo zaie elkarrizketa.

7.- Azkenik, ikerketa amaituta, beste elkarrizketa bat egingo da gurasoekin, emaitzen berri emateko, honako hauek kontuan hartuta:

- Ikerketaren prozesuaren laburpen motz bat (arrazoiak, prozesua nola joan den,...)

- Ikerketaren ondorioen azalpena (larritasunaren maila, sumatutako tipologiak, etab.)

- Kasuaren orientazioari buruzko informazioa (Aldundira bideratzea, esku-hartzea balorazioan, ebaluazioa, etab.)

2

Banan-banan egin testuinguruan kokatzeko elkarrizketa, dibortziatuta dauden kasuetan edo urruntze-agindua dagoen kasuetan.

Jarduteko barne-protokoloa, haurrak arrisku egoeran edo babesgabezia egoeran daudenerako

Susmoa eragin duen haurren egoera ez ezik, familiaren etxebizitzan bizi diren gainerako anai-arreben egoera aztertzea da garrantzizkoa, bereziki, txikiena.

Ezinbestekoa da jasotzen den informazioa behar adinakoa, fidagarria eta dokumentatua izatea, hartara, egiten diren balorazioak eta ateratzen diren ondorioak zuzenak izango direla bermatuko da.

e) Babesgabezia egoera ba ote dagoen aztertzea:

Babesgabezia ba ote dagoen zehazteko bi adierazle hartuko dira kontuan:

1- Haurren ase gabeko oinarrizko beharrei buruzko informazioa³. 2- Haurren tratu txarraren edo babesgabeziaren tipologia, Balora agirian garatutakoak.

f) Larritasunaren ebaluazioa eta babesgabezia berriro gertatzeko zer aukera dagoen⁴.

Larritasuna ebaluatze aldera eta babesgabezia egoera berriro gerta ote litekeen zer aukera dagoen aztertze aldera, irizpide hauek izango dira kontuan:

- *Babesgabezia egoeraren larritasuna*. momentuko tratu txarraren edo abandonuaren tipologia; babesgabezia egoeraren maiztasuna, kronikotasuna eta indarra; haurren adina; babesgabeziaren ondorioz, kalte fisikorik ba ote dagoen edo ospitaleratzetik edo tratamendurik baden; egonezinaren sintoma nabarmenak, mugak edo egokitu ezinak, esaterako, atzerapen nabarmena garapenean, jokabide baztertzailleak edo oso inhibitzaileak; jokabide oldarkorrak, ohiko jokabide hiperaktiboak, haurren gaitasunean eragiten dutenak, etab.

- *Familiaren errehabilitaziorako pronostikoa*: babesgabeziarekin lotutako faktoreak ebazteko larritasuna, kronikotasuna eta zailtasuna; familia barruko indarkeria kontrolaezina; gurasoen eta seme-alaben arteko lotura; egoerak hurrengan eragiten duen kalte txarraz gurasoek jabetzen ote diren; gurasoek motibaturik ote dauden aldaketarako; eta beharrezkoak diren baliabideak familiari laguntzeko.

- *Guraso eta legezko arduradunek gizarte zerbitzuekin elkarlanean*: eraginkortasuna eta zerbitzuetan esku hartzeko onarpen maila.

³ Haurren beharren teoria. Eranskina.

⁴ Jarduteko gida, haurrak babesgabezia-egoeretan daudenerako. 51-56 orrialdeak.

Jarduteko barne-protokoloa, haurrak arrisku egoeran edo babesgabezia egoeran daudenerako

Ikerketaren bidez, haurra zer arrisku-egoeratan dagoen balioetsiko da, hau da, aztertu egingo da zer aukera dagoen etorkizunean berriro ere tratu txarra edo abandonua gertatzeko; eta, halaber, egoera gogorra izan ote litekeen eta haurra arrisku larrian jar ote lezakeen edo bere osasunean eragina izan ote lezakeen, azken batean, haurren segurtasunean eragiteko.

Garrantzizkoa da kontuan izatea ikerketan ez dela aldagai guztien ebaluazioa sakontasunez egingo, baizik eta jakin egin behar dela arriskua gehitzen edo gutxitzen duten faktoreak agerian edo ezkutuan ote dauden, eta haien intentsitatea zein ote den.

g) Ikerketaren ondorengo jarduketa

Ikerketa amaituta, kasu bakoitza sailkatu egingo da, hauek kontuan izanda:

- a0 Larritasun handia, oso handia.
- b0 Larritasun handia.
- c0 Arrisku arina.
- d0 Babesgabeziaren susmoa.
- e0 Egiaztatu gabeko kasua, nahiz eta haurrak eta/edo familiak zailtasunak izan, eta gizarte zerbitzuen esku-hartzea behar izan.
- f0 Egiaztatu gabeko kasua denez, ez da beharrezkoa gizarte zerbitzuen esku-hartzea.

Susmoa dagoenean, jarduketa-plana egingo da, eta jarraian aipatzen diren hautabideak erantsiko dira:

- a0 Haurrarekin eta familiarekin harremana duten beste zerbitzu batzuekin elkarlanean kasuaren jarraipen hurbila egiteko plangintza egitea, gehienez ere, sei hilabeterako. Eta,
- b0 Kasua esku-hartzean balorazioa egiteko bideratzea, gehienez ere, sei hilabeteko epean.

Ikerketa egin beharreko kasu guztietan **teknikariak protokoloa beteko du edo txostena egingo du**, eta kasuaren espedientean erantsiko du.

h) Kasuaren arduraduna zehaztea:

Pasaiako Udalaren gizarte zerbitzuek ikerketa egin eta gero, aztertu egingo da zein zerbitzuek hartuko duen bere gain kasuaren ardura nagusia:

Udaleko gizarte zerbitzuak:

Jarduteko barne-protokoloa, haurrak arrisku egoeran edo babesgabezia egoeran daudenerako

- Babesgabeziako arriskua duten egoerak.
- Babesgabeziako arrisku arina/ertaina duten egoerak.
- Oinarrizko beharrak asegabe dituzten haurren egoerak, gizarte eta ekonomia arloetako arazoek edo inguruabarrek eraginda, gurasoen edo legezko arduradunen kontroletik kanpo zaintza edo babesa bere gain hartu nahi ez dutenak.

Foru Aldundia:

- Babesgabezia egoera larriak eta guraso/legezko arduradunek ez dute arazoari dagokionez, behar adinako kontzientzia hartzen, eta/edo ez dira prest agertzen zerbitzuekin lankidetzan aritzeko.
- Sexu-abusuaren susmoa dago edo sexu-abusua egiaztatu da (familiaren barrukoa edo familiarik kanpokoak, eta guraso edo legezko arduradunek ez dute gaitasunik haurrek aurrerago izan ditzaketen abusetatik babesteko, eta haien gaitasuna dela eta, zalantza handia eragiten dute).
- Gurasoek edo legezko arduradunek uko egitea.
- Alkoholaren ondorioz jaiotzetik haurrek dakarten sindromea edo abstinentziaren sindromea (metadonarekin tratamendua duten amek izan ezik).
- Delituzko, prostituzioko edo sexu esplotazioko ekintzetara eragindako haurrak.
- Oinarrizko beharrak asegabe dituzten haurrak edo babesgabeziako tipologiaren bat jasaten duten haurrak, eta ondorioz, jarraian aipatzen den arazoetakoren bat edo jarraian aipatzen diren arazo batzuk agertzen dituzte:
 - Haur txikietan, garapenaren atzerapen nabarmena.
 - Jokabide baztertzaila edo inhibizio latza, eta uzkurutasuna.
 - Jarrera oldarkorra, disruptiboa edo arriskutsua norberarenganako edo gainerakoenganako.
 - Ohiko jokabide hiperaktiboak eta kronikoak galarazi egiten diote haurrari bere roletan jardun dezan.
 - Bere buruaz beste egiteko saiakerak edo bere buruaz beste egiteko adierazpenak. Nork bere burua suntsitzeko joera eta jokabidea.
 - Drogaren edo alkoholaren mendekotasuna, edo droga eta alkohola hartzeko ohitura izatea.
 - Etxetik edo eskolatik maiz alde egitea.
 - Txostenak delituzko jokabideetan parte hartzeagatik, aurretik egindakoak edo egun egindakoak.
 - Nahasmendu psikiatriko larriaren diagnostikoa izatea.

Jarduteko barne-protokoloa, haurrak arrisku egoeran edo babes gabezia egoeran daudenerako

Udaleko gizarte zerbitzuetako teknikariek kasuaren erantzukizuna Foru Aldundiari dagokiola balioesten dutenean, kasua haurren eta nerabeen eskualdeko taldera (EZIA) bideratuko dute. Kasuaren erantzukizunari buruzko zalantzak dituztenetan ere EZIAra bideratuko dute, galdera egiteko eta aholkua eskatzeko.

5.5. Sexu-abusuaren susmoa dagoenerako ikerketa egitea

Euskal Autonomia Erkidegoan haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko udaleko eta lurraldeko gizarte-zerbitzuetan arrisku-egoeren larritasuna balioesteko Balora izeneko tresnan sexu-abusua honela definitzen da: "sexu arloko edozein kontaktu edo elkarreragin tutoretza edo zaintza betetzen duten pertsonen edo gurasoen edo bizikidetza-unitatea osatzen duten ahaideen edo gertukoaren eta haurraren edo nerabearen artean, non pertsona horrek, definizioz haurrarengan edo nerabearengan boterea edo agintaritza duenak, adingabea erabiltzen duen norberaren, haurraren edo nerabearen, edo beste pertsona baten sexu-estimulaziorako".

Aldi berean, tipologia honek haurraren edo nerabearen tutoretza edo zaintza betetzen duten pertsonak edo gurasoak edo bizikidetza-unitatea osatzen duten ahaide edo gertukoak egindako sexu-abusua hartzen du barnean. Aipatutakoez besteko pertsona batzuek egindako sexu-abusuaren kasuan, kasua balioetsiko da, eta hala badagokio, "beste pertsona batzuek egindako babesgabetasun larriko egoeren aurkako babesa" tipologia kalifikatuko da.

Kontuan izan beharrekoa da, sexu-abusuaren tipologian ez dagoela larritasun ertaineko edo arrisku arineko kalifikaziorik.

Segurtasun-premieko arduragabekeriari dagokionez, beste pertsona batzuek babes gabezia larriko egoerak eragiten dituztenerako babes ematea izeneko babesgabeziako tipologia, Baloran ezarritakoaren arabera, bakar-bakarrik ezartzen da haurrari, adingabeakoari edo nerabeari tratu txarra, abusua, eraso edo mehatxua eragin dion adinduna edo adingabeakoa aita, ama edo zaintzaz arduratzen diren pertsonak ez direnean.

Beraz, Baloran bakar-bakarrik jasotzen dira sexu-abusua gurasoek edo zaintzaz arduratzen diren pertsonak edo adingabeakoen bizikidetza-unitatean bizi diren pertsonak eragindako kasuak, eta hirugarren batzuek eragindako kasuak, adingabeakoen zaintza eta segurtasunaren alde egin behar duten guraso edo helduen arduragabekeriarekin harremana badute. Hau da, haurren

Jarduteko barne-protokoloa, haurrak arrisku egoeran edo babesgabezia egoeran daudenerako

babeserako sistemarenak dira sexu-abusuaren ondorioz sortzen diren babesgabezia egoeren kasuak. Gainerako kasuetan familiari, guraso, tutore edo zaintzaileei sistema judizialera jotzeko adieraziko zaie.⁵

Guraso batek edo heldu batek sexu-abusua eragin duelako susmoa baldin badago, eta beste guraso batek horri buruzko nahikoa informazio fidagarri eta osatu ematen badu, baina iskin egiten badio gizarte zerbitzuek salatzeke edo adingabekoak babesteko emandako gomendioari, sexu-abusuaren susmoa izateaz gain, guraso horren balizko arduragabekeria izango da, izan ere, adingabekoa babesgabezia egoeran edo babesgabetasun egoeran egongo da.

Oinarrizko gizarte zerbitzuen eta gizarte zerbitzu espezializatuen eskumenen banaketa dela-eta, gizarte zerbitzu espezializatuak dagokie tipologia honetako balorazioa, ikerketa eta ebaluazioa egitea, berriaz prestatutako taldeak baitituzte. Hala ere, oinarrizko gizarte-zerbitzuen eskumena da egoeren detekzioa egitea, ahalik eta informaziorik gehien eskuratzea eta gizarte-zerbitzu espezializatuera bideratzea, berriaz landutako protokoloa bete ondoren.

Zehazki, oinarrizko gizarte-zerbitzuek jardun beharra izango dute, horrelako kasuetan hiru adierazle sumatzen badituzte: 1) Sexu-abusuaren oso berriazko adierazleak; 2) Sexu-abusua izan litekeela agertzen duten adierazleak; eta 3) Sexu-abusuarenak espezifikoak ez diren adierazleak.⁶

Haurren babesgabeziako egoeretan jarduteko Gipuzkoako Foru Aldundiaren gidan honako hau jasotzen da:

Sexu-abusuaren oso berriazkoak diren adierazleak

- Informazio fidagarria jaso da, adingabekoarekin gurasoek edo beste heldu batzuek jokabide desegokiak dituztelakoan, edo jokabide desegokiak dauden lekukoak daude.
- Haurrak edo nerabeak adierazi du sexu-abusua jasan duela.
- Haurrak adierazle fisiko hauetakoren bat ageri du: zauriak genitaletan edo uzkiean (urratu berriak edo orbainak emamintzean; zentimetro bat baino gehiagoko

⁵ Kasu honetan, betiere, EZIArekin kontsulta egin ondoren.

⁶ Sexu-abusuaren berriazko adierazleak agertzen direnean eta sexu-abusuaren susmoa dagoelako adierazleak agertzen direnean, Aldundiari dagokio egoeraren balorazioa egitea. Sexu-abusuarenak berriazkoak ez diren adierazleak badaude, ikerketa edo ebaluazioa oinarrizko gizarte-zerbitzuetan egingo da.

Jarduteko barne-protokoloa, haurrak arrisku egoeran edo babesgabezia egoeran daudenerako

emamintza; urradura baginaren muki-mintzean; uzkiaren eta uzkiko esfinter hipotonikoaren zabalkuntza; hanturak, gorriuneak eta zauriak hazka egiteagatik), odola baginan edo uzkian, infekzio genitalak edo sexu-kutsapenak, haurdunaldiak.

Sexu-abusua izan litekeela agertzen duten adierazleak (sexu-abusua izan litekeenaren hipotesia, beti balioetsi behar da, izan ere egiazkoa izan liteke).

Esaterako:

- Oso jokabide sexualizatuak eta erotikoak, ezohikoak haurren adinean, hala nola, masturbazio konpulsiboak; adinerako jokabide desegokiak; “sendagile izatera, ezkongai izatera edo aita izatera” izeneko jolasaren aldagaiak; indarraren erabilera edo hertsatze psikologikoa, beste haur batzuk sexu-jolasetan parte har dezaten; sexualizazio goiztiarra; haur txikiagoekin sexu-jolasak egiten aritzen diren haurrak; heldu eta nerabeengana modu berezian hurbiltzea (sexu-promiskuitatea, prostituzioa edo neurritz kanpoko sexu-inhibizioa).
- Adingabeak bere adinerako ohikoak ez diren sexu-ezaguerak ditu.
- Haurraren gurasoetako batek edo familiako kideetako batek abusua gertatzen ari den susmoa du.
- Haurrarekin bizi direnek haurrak sexu-jokabide desegokiak dituelako informazioa eskuratu dute edo susmoa dute.

Sexu-abusuarenak berariazkoak ez diren adierazleak (nahasmenduak ez dira ezinbestean abusuaren ondorioz agertzen, izan ere abusurik izan gabe ere gerta daitezke. Hala eta guztiz ere, estres-egoera handietan agertzen direnez, susmoaren adierazle dira. Sexu-abusuaren hipotesia beti izan behar da kontuan, eta balioetsi egin behar da).

- Adierazle fisikoak: nahasmendu psikosomatikoak, adibidez, sabeleko min ugariak eta buruko minak, arrazoi organikorik ez dela; elikaduraren nahasmendua (bulimia eta anorexia nerbiosoa); atzeranzkoaldiak, esaterako, enuresia eta enkopresia; genu-infekzio ugariak, arrazoi organikorik ez dela.
- Adierazle psikologiko eta jokabidezkoak, esaterako:
 - a) Haurtzaroaren hasieran: uzurtasuna; gorabeherak jardueretan, eta jokabide oldarkorrak eta atzeranzkoak; arrazoirik gabeko beldurrak zenbait pertsona edo egoeraren aurrean; gorabeherak loaren erritmoan.
 - b) Eskolaurrean: traumaren ondorengo estresaren sintomak; hiperaktibitatea; enuresia eta enkopresia; loaren gorabeherak; izu eta beldur galantak; era askotako jokabide konpulsiboak;

Jarduteko barne-protokoloa, haurrak arrisku egoeran edo babesgabezia egoeran daudenerako

fenomeno disoziatzaileak.

c) Eskola-umeengan eta nerabezaro aurrean: aurreko garaietan azaldu diren nahasmenduetatik edozein; ikasteko zailtasunak edo gorabeherak eskola-errendimenduan, bat-batean agertutakoak, arrazoi argirik gabe; etxetik ihes egitea; uzurtasun nabarmena edo, aitzitik, kontraktasun eta oldarkortasun amorratua etxean eta/edo lagunekin edo berdinekin; gainerakoen aurrean eraginkor, arrakastatsu eta osasuntsu agertzea, eta haurrek euren garapenarekin bat ez datozen heldutasuna agertzea; gatazkak agintariekin, eta mesfidantza hurbileko helduekiko; lapurreta txikiak; gezurrak askotan esatea; etsipen eta tristura sentimenduak; ohiko eskola-ordutegitik kanpo eskolan gelditzeko joera.

d) Nerabeengan: Indarkeriako jokabideak, norberaren segurtasunerako arriskutsuak; uzurtasuna; gainerakoen aurrean eraginkor, arrakastatsu eta osasuntsu agertzea; etxetik ihes egitea; droga-kontsumoa; delitugintza; nork bere burua mutilatzea eta jokabide oldarkorrak; nork bere buruaz beste egiteko saiakerak; nahasmendu disoziatiboak eta nahasmenduak elikaduraren jokabidean.

5.6. Ebaluazioa

Ebaluazioa ikerketaren prozesu osagarria da. Helburuak honako hauek dira: tratatu txarraren etiologia zehaztea (arazoaren kausak; banakoen, familien eta gizartearen faktoreak); egoeratik haurrak nola dauden erasanda jakitea, eta tratamendurik egokiena zein litzatekeen adieraztea. Halaber, gurasoek guraso izateko gaikuntzarik ote duten zehazten da.

Nahiz eta praktikan beharrezkoa den informazioa ikerketan jasotzen den, ebaluazio egokia egiteko, batzuetan beharrezkoa izaten da berriro ere familiarekin harremana duten profesionalei elkarrizketak egitea, batez ere, zehatz-mehatz jaso daitezten haur, familia eta inguruabarren daturik nabarmenenak. Aldi honetan elkarrizketa ugari egiten dira familiako kideekin.

Ebaluazioaren zatirik garrantzikoena da ebaluazioa helburu duen familiaren indarguneak eta ahulguneak ezagutzea.

Ebaluazioa garrantzikoa da, izan ere ebaluazioan jasotzen da familiari zer zerbitzu edo esku-hartze egingo zaion. Ebaluazioa egiteko egoera nolakoa, halakoa izango da familiarekin bete beharreko helburua, eta eskura jarriko den baliabideen kopurua.

Jarduteko barne-protokoloa, haurrak arrisku egoeran edo babesgabezia egoeran daudenerako

a) Ebaluazioaren helburuak

1.- Arrisku egoera edo babesgabezia egoera zertatik datorren eta zergatik mantentzen den zehaztea, hala nola, iturburua norberarengan, familian edo gizartean ote dagoen zehaztea. Aldi berean, familiaren antolamenduaren aldeko arloak zeintzuk diren zehaztea.

2. - Haurraren garapen fisikoan, psikologikoan eta/edo sozialean arrisku edo babesgabezia egoeraren ondorioak zeintzuk izan diren zehaztea.

3. - Haurraren eta familiaren tratamendurako eta laguntzarako beharrak zeintzuk diren zehaztea.

4. - Babesgabezia egoeretan gurasoen edo legezko arduradunen gaikuntzarako pronostikoa zein izango den zehaztea.

b) Zein kasutan egiten da?

Udaleko gizarte zerbitzuei dagokie ondoren aipatzen diren kasuen ebaluazioa:

- Babesgabezia arriskua eta babesgabezia arina, familiaren arazoak nahiko larriak direnean, eta banan-banako esku-hartze plana beharrezkotzat jotzen denean.
- Babesgabezia ertaineko kasu guztiak.

c) Ebaluazioa egiteko epeak

Hasierako ebaluazioa hasten denetik sei asteko epean, gehienez ere, amaitu egin behar da. Balorazioa esku-hartzean fasera bideratzen diren kasuak izan ezik, kasu horietan ebaluazioa sei hilabetera luzatu baitaiteke.

d) Ebaluazioari buruzko adierazle nagusiak

Jarraitu beharreko oinarritzko urratsak:

- Kasuaren espedientean jasotako informazioa aztertzea.
- Jaso beharreko informazio gehigarria zein den zehaztea.
- Kontsultatzekoak diren informazio-bideak aukeratzea; zehaztea zer informazio jaso behar den bakoitzetik, zer hurrenkera erabiliko den eta zer metodo erabiliko den.
- Informazioa jasotzeari ekitea.

Jarduteko barne-protokoloa, haurrak arrisku egoeran edo babesgabezia egoeran daudenerako

- Plangintzan jasotako prozeduraren ebaluazioa behin eta berriro egitea edo aldaketak egitea.
- Jasotako informazio guztia aztertzea, eta bigarren puntutik aurrera ekitea berriro prozesuari.

Ebaluazioaren oinarria izango da **informazio osatua, eguneratua eta alderatua jasotzea**.

- Osatua dela esatea da familiaren eta familiako kideen bana-banako familia arloa eta gizarte arloa aztertuta, aurreko eta egungo jardunaren informazioa eskura izatea.
- Eguneratua izatea da familiari buruzko informazioa ebaluazioaren une berean txertatua izatea.
- Alderatua izatea da informazio-iturri ugari izatea, guztien artean harremanikgabeak, eta jasotako informazioa egiazkoa eta fidagarria dela egiaztatua izatea.

Ebaluazioaren bitartez, arrisku-egoeran edo babesgabezia-egoeran dagoen haurren garapenaren arlo guztiei buruzko informazioa jasoko da. Arlo fisikoa, soziala, kognitiboa eta emozionala (adierazleak).

Informazioa ahalik eta objektiboena izan dadin proba psikometriko espezifikoak egingo dira. Segidan, ebaluazioa egiteko eskuragai dauden proben zerrenda jasotzen da (arrisku eta/edo babesgabezia egoeren baloraziorako programaren barruan).

Helburu/xede proba	Adinaren ratioa	Oharrak	
CBCL	Haurren eta nerabearen jokabidearen ebaluazioa	3 urtetik 18ra	Irakasle, guraso eta adingabekoentzako eskalak
BASC. Haurren eta nerabeen jokabidea ebaluatzeko sistema (Reynolds eta Kamphaus)	Haurren eta nerabearen jokabidearen ebaluazioa	3 urtetik 18 urtera	Guraso eta haurrentzako eskalak, eta behaketa klinikoaren eskala
MACI. Nerabeentzako Millon inbentario	Nortasunaren ezaugarrien eta sindrome klinikoaren	13 urtetik 19 urtera	

Jarduteko barne-protokoloa, haurrak arrisku egoeran edo babesgabezia egoeran daudenerako

klinikoa	ebaluazioa		
T2F			

Tratu txarraren eragina haurraren banan-banan ebaluatu behar da, eboluzioaren zer alditan dagoen kontuan izanda eta norberaren ezaugarriak aintzat hartuta. Halaber, kalte erreal eta behagarria jaso ez ezik, haurrak izan lezakeen kaltea ere jaso beharrekoa da, zehatz esanda, etorkizunean zer kalte izan lezakeen. Gogoan izan behar da haur asko dagoela babesgabezia egoeran, eta ebaluazioa egiten zaienean ez dutela kaltearen edo egonezinaren sintoma nabarmenik adierazten. Hala ere, horrek ez du esan nahi kalterik ez dagoenik, baizik eta sintomak ez daudela oraindik agerian.

Alabaina, kontuan izan behar da haur batzuk oso familia-ingurune kaltetuetan bizi badira ere, inguruan inguruabar babesgarriak dituztela (esaterako, haurraren inguruan haurrarentzat garrantzizkoa den heldu bat dago, eta bien arteko lotura egokia da. Gizarte-ingurune positiboa du, ahalmen intelektuala du), eta garapen osasungarria izan dezaketela. Horrenbestez, egonezinaren edo egokitu ezinaren sintomak ez badaude, izan liteke garapen osasungarria duelako izatea (faktore erresilienteak).

Tratu txarreko kasu guztietan gerta liteke hori, familia barneko sexu-abusuan izan ezik. Kasu horietan ebaluazioa egiten ari dela, ezinbestean izan behar da kontuan kalte latza jasaten ari dela babesa jaso behar duenarengandik, nahiz eta haurrak egonezinaren sintomak ez agertu.

Ebaluazioaren barruan sartzen da gurasoen edo legezko arduradunen kontzientzia mailaren balorazioa, haurrak jasan duen kalteari edo jasan dezakeen kalteari dagokionez, eta egoera honetan zenbaterako erantzukizuna ote duten, eta zer kontzientzia maila duten, jasaten ari diren arazoei dagokienez. Beste toki batzuetatik jasotzen ari diren informazioa alde batera utzita, gai horiek guraso edo legezko arduradunekin zuzenean aztertu behar dira ebaluazioko elkarriketetan.

5.7. Esku-hartzea

Esku-hartzearen plangintzaren bitartez, adingabekoaren babesa eta ongizatea sustatu behar dira, eta haurrari edo nerabeari arriskua eragiten dioten egoerak edo jokabideak aldarazten laguntza eman behar da.

Jarduteko barne-protokoloa, haurrak arrisku egoeran edo babesgabezia egoeran daudenerako

Haurraren edo nerabearen babeserako proposamenaren ondoren jarraitu beharreko prozesua da, izan ere epe motz eta luzerako garatu beharreko konponbideak edo estrategiak definituko dira, haurrarentzat arrisku-iturri diren arazoei irtenbidea emateko.

Esku-hartzearen plangintza kasuaren plana izeneko dokumentuan zehaztuko da. Erabakiak hartzeko prozesua arrazionalki antolatuta agertuko da, eta haren bidez, haurrarekin eta familiarekin garatu litekeen jarduketa erakundeek eta zerbitzu ugariak nola elkarlanean garatu azalduko da.

Kasuaren planean jasoko dira hasierako balorazioa bukatu ondoren hartutako erabaki nagusiak. Erabaki antolatuetan egituratuko da, lan analitikoa eta egoeraren ikuspegia errazagoa izan dadin, eta erabaki batzuek beste batzuen segidan har daitezten.⁷

Esku-hartzearen plangintzaren helburuak

1. Adingabekoa babesteko **kasuaren plana egitea**, behin betiko gizartera dadin.
2. Adingabekoaren babesean eragina duten **lagun guztien parte-hartzea prozesu baten barruan bermatzea**, negoziazioaren bitartez adostasuna bilatzeko: adingabekoa, gurasoak edo tutoreak, tartean diren zerbitzuetako profesionalak (osasuna, enplegua, hezkuntza, etab.), udaleko eta foruko gizarte-zerbitzuetako profesionalak.
3. **Egungo araudiaren ezarpen zuzena bermatzea**, adingabekoen babesari eta jarduketa teknikoaren koherentziari dagokienez.

Esku hartzeko plana lantzeko epeak

Ebaluazioa esku-hartze planaren lanketarekin bukatuko da, alderdi guztiekin (familia, esku hartzen ari diren beste profesional batzuk, etab.) adostu ondoren. Plana, gehienez ere, bi astetan idatziko da, ebaluazioa egin ondoren.

Esku-hartzearen planifikazioaren aldiak eta plana abian jartzea

1. Arretarako banan-banako plana lantzea / Kasuaren plana jasotzen duen protokoloa betetzea

⁷ Kasuaren planaren eredia eranskinean.

Jarduteko barne-protokoloa, haurrak arrisku egoeran edo babesgabezia egoeran daudenerako

Proposatzen diren helburuen arabera egituratu behar da kasuaren plana. Helburuak koherenteak izango dira eta xedearekin bat etorriko dira. Hortaz, kasuaren planean zein helburu diren egokiak erabakiko da, eta helburu eraginkorrak garatuko dira, proposatzen diren jomugak zein neurritan betetzen diren zehazte aldera.

Helburuak

- Plana abiarazteko beharrezko hitzarmenak egitea (familia, esku hartzeko baliabideak, beste zerbitzu batzuk, etab.)
- Plana abiarazten denean lan egingo duten zerbitzuen eginkizunak, ardurak eta komunikaziorako bideak zehaztea.

Kasuaren plana abian jartzeko hitzarmenak zehaztea

- Neurri, baliabide eta esku-hartzeei dagokienez, kasuaren koordinatzaile den gizarte-langileak hartutako neurrien berri emango die guraso edo tutoreei, eta adinagatik eta euren egoeragatik egokia bada, adingabekoei.
- Guraso, tutore eta hurrek kasuaren plana onar dezaten ahaleginak egingo dira, esku-hartzearen arrakasta ahalbidetzeko garrantzizko faktorea baita.
- Hitzarmen sinatua idatziko da haien artean.

Hitzarmenak esku hartzen ari diren beste zerbitzu eta profesional batzuekin.

- Hitzarmenak egingo dira kasuaren planean diharduten zerbitzu komunitario eta espezializatu guztiekin, batez ere, gai hauei dagokienez: lortzekoak diren helburuak; bereganatu beharreko eginkizunak; esku hartzeko prozedura; elkarbanatzeko informazioa eta erabiltzekoak diren komunikazio-bideak.
- Horretarako, garrantzizkoa da zerbitzu guztiek ideia argia izatea, ez bakarrik eginkizun zehatzena, baita ere esku-hartze osoaren ikuspegiarena. Ikuspegi hori kasuaren planean helaraziko da.

2. Plana abiaraztea eta etengabeko ebaluazioa egitea.

Helburuak

- Beharrezko diren jarduketak sustatzea, planean ezarritako helburuak lortze aldera.

Jarduteko barne-protokoloa, haurrak arrisku egoeran edo babesgabezia egoeran daudenerako

- Haurren eta familiaren egoerari buruzko etengabeko ebaluazioa egitea, eta planean aurreikusitako helburuei jarraipena ematea.
- Planean aurreikusten diren helburu eta zerbitzuei buruzko beharrezko aldaketak egitea.
- Adingabeko eta familiaren egoerari buruzko etengabeko jarraipena egitea; baita kasuaren planaren garapenari buruzkoa ere (aurreikusi den bezala garatzen ari den).
- Kasuaren koordinatzaileak asko jota sei hilean behin berraztertuko du plana, lau urte baino gehiagoko haurren kasuak direnean; eta asko jota lau hilabetean behin, lau urtetik beherako haurren kasuak direnean.
- Berraztertzeetan, baliabide, zerbitzu eta planaren hasieran erantsitako beste arlo batzuetan aldaketak egin behar ote diren aztertuko da. Guztia jasoko da kasuaren plana berraztertzeke protokoloan.

Berrikuspena egiteko kasuaren koordinatzaileak informazioa jasoko du honako hauen bitartez:

- Familiarekin aurrez aurreko harremana izanda, asko jota, sei hilean behin; eta adingabekoekin, egoki irizten zaionean.
- Familiarekin esku hartzen ari diren berariazko zerbitzuekin elkarlanerako bilerak eginda (hiru hilabetekoa izango da, gehienez ere, bilerak egiteko epea). Zerbitzuei sei hilabetean behin, gutxienez, txostena eskatuko zaie. Beharrezkotzat joz gero, edo egoerak hala behartuta bada, sei hilabete baino lehenago. Txostena kasuaren koordinatzaileari emango zaio, elkarlanerako bilera egin baino astebete lehenago, gutxienez.
- Familiarekin eta hurrekin esku hartzen ari diren beste profesional edo zerbitzu batzuekin bilerak egitea edo harremana izatea. Kasu horietan kasuaren koordinatzaileak frogak eska ote ditzakeen edo informazio osagarria eska ote dezakeen aztertuko da.

3. Espedientea ixtea

Salbuespenak egon badaitezke ere, espedientea ixteko irizpideak hauek izango dira:

1. Babesgabezia egoera eragin zuten kausak desagertu egin dira.
2. Babesgabezia eragin duen heldua ez da familiaren etxebizitzan bizi, eta ez da hurrengana hurbilduko.
3. Adingabekoa adinez nagusia da.

Jarduteko barne-protokoloa, haurrak arrisku egoeran edo babesgabezia egoeran daudenerako

4. Haurra hil egin da.
5. Adingabekoak udalerriz aldatu dira.

Kasuaren koordinatzaileak modu formalean itxiko du familiarekin, adingabekoarekin edo gaztearekin esku-hartzea; baita kasuan nabarmenak izan diren zerbitzu eta profesionalekin ere. Ahal den guztietan, kasuari amaiera emateko aurrez aurreko elkarrizketa egingo da adingabeko eta familiarekin.

PASAIKO UDALA

www.pasaia.net IFK/CIF P2006900A

Donibane kalea, 19, 20110 Pasaia

Tel: 943 344034 / Faxe: 943 515447

Gizarte Ekintza

Euskadi Etorbidea 27

943 004320

gizartekintza@pasaia.net

Jarduteko barne-protokoloa, haurrak arrisku egoeran edo babesgabezia egoeran daudenerako

JARDUTEKO PROTOKOLOAK

KASUAREN BERRI IZATEN DENERAKO PROTOKOLOA

1.- Jakinarazpen guztiak jasoko dira, informatzailea zein den eta jakinarazpena nola iritsi den kontuan izan gabe.⁸ Jakinarazpenari erantzuna emateko adingabekoen eta familiaren identifikazio-datuak behar dira eta/edo jakinarazpena zerk eragin duen egoeraren deskribapena. Gizarte-langileek detekzioa egiten duten kasuetan izan ezik, jakinarazpenak haurren programaren koordinatzaileen bitartez egingo dira.

2.- Haurren programako koordinatzaileek zehaztuko dute kasua Pasaiako gizarte-zerbitzuei⁹ dagokien eta/edo haurra edo nerabea arrisku egoeran ote dagoen. Horretarako:

- Erroldaren bitartez egiaztatuko da.
- Jakinarazitako arrisku-egoera aztertu egingo da (adierazle, tipologia eta behar ase gabeak edo familia-sistemeekin harremana duten arrisku-faktoreak).
- Informazio osagarria jasoko da, beharrezkoa izanez gero.
- Babes bereziko egoera bada, espedientea gizarte-langileari emango zaio eta haurren babeserako eremuan jarduteko prozesuko datu-basea beteko da.

3. Gizarte-langileek haurren babeserako espedientea abiaraziko dute kasu guztietan (gizarte zerbitzuetan espedientea abiarazita edo abiarazi gabe duten familiak).

4. Babes bereziko egoeran dauden haurren kasu guztietan honela jokatuko da:

- Kasuaren lehentasun maila zein den zehaztuko da.¹⁰
- Hurrengo urratsari buruzko erabakia hartuko da:
- Ikerketaren hasiera egingo da.
- Balorazioaren hasiera egingo da, eta/edo baloraziorako programara bideratuko da.

Familian esku hartzeko programara bideratuko da. Esku-hartzearen balorazioa egingo da.

5. Arrisku egoerarik ez dagoelako ustea baldin badago,

- Kasua baliabiderik edo zerbitzurik egokienera bideratuko da.
- Espedientea itxiko da.
- Gizarte zerbitzuek beharrak lantzen jarraituko dute, nahiz eta haurren babesaren gaiarekin zerikusirik ez duten.

⁸ Jakinarazpena idatziz egiten ez den kasu guztietan, Pasaiako gizarte-zerbitzuek jakinarazpenerako orria beteko dute.

⁹ Gidako 15. eta 16. orrialdeak.

¹⁰ Gidako 31. orrialdea.

Jarduteko barne-protokoloa, haurrak arrisku egoeran edo babesgabezia egoeran daudenerako

JARDUTEKO PROTOKOLOA

1.- Kasuaren arduradun den gizarte-langileak aztertuko ditu udaleko gizarte zerbitzuetan jasota dauden kasuaren aurrekariak.

2.- Foru Aldundiaren eta familiak aurretik bizi izandako udalen gizarte-zerbitzuetako informazioa jasoko da; hartara, jakingo da kasuaren espedienterik ba ote dagoen, eta aurretik adingabekoen tratu txarren historiarik ba ote dagoen, eta tipologia eta larritasun maila zein diren, anai-arrebei eragin ote zien, abusu eragilearen identifikazioa zein den eta kasuari dagokionez, zer esku-hartze egin den. Garrantzizkoa da egiaztatu gabeko tratu txarren susmorik izan bada, informazioa jasotzea.

3.- Espedienteetako informazioa jaso ondoren, gizarte-langileak guraso edo legezko arduradunei dagokien barrutiko gizarte-zerbitzuetara bertaratzeko hitzordua emango die, beste toki batean biltzekoak ez baldin badira, behintzat (urruntze-aginduak diren kasuak), eta jakinarazpenaren berri emateaz gain, ikerketaren hasieraren berri emango die. Aldi berean, haiengandik informazio zuzena jasotzeko aukera izango du. Haiek topatu ezin izan direnetan edo elkarrizketari uko egin izan diotenenetan bakarrik arrazoitu ahal izango da elkarrizketarik ez egitea, dagokion txostenean jaso ondoren. Oro har, ez da elkarrizketarik egingo familia bertaratzen ez denean edo hiru hitzordu helarazi eta (idatziz eta jaso izanaren adierazpena), familia udalarekin harremanetan jartzen ez denean.

Testuinguruan kokatze aldera, haurren gurasoekin, tutoreekin edo zaintzaileekin egingo den lehenengo elkarrizketa kasuarekin harremana izan dezaketen familiartekoekin edo profesionalekin izan aurretik egin behar da. Elkarrizketan landuko diren arloak hauek dira:

- Ardura duten profesionalen aurkezpena egitea (gizarte-langilea, baloraziorako programa, etab.)
- Ikerketaren prozesuari ekiteko arrazoiak.
- Horrelako prozesu batek zerk dakarren; zenbat elkarrizketa egingo diren; prozesuaren iraupena...
- Ikerketa bukatu ondoren zer gerta litekeen.

Testuinguruan kokatu eta gero, legezko arduradunek ikerketa onartzen dutela agertzen duten dokumentua sinatuko dute, ados baldin badaude; edo uko egiteko dokumentua, ados ez badaude.¹¹

11

Parte hartzeko hitzarmenaren eredua ikusi

Jarduteko barne-protokoloa, haurrak arrisku egoeran edo babesgabezia egoeran daudenerako

4.- Familiaren eta haurraren egoeraren informazioa eman dezaketen iturburu guztiei buruzko informazioa jasoko da: kale-hezitzaileak, osasun-zerbitzuak, eskolak, haurtzaindegia, polizia, etab. Informazioa elkarrizketa bidez (telefonoz edo aurrez aurre) edo txosten bidez jasoko da. Jaso beharreko informazioa hau da:

- Adingabeak egonezina agertzeko zer adierazle agertzen dituen.
- Guraso eta seme-alaben arteko harremana (babesgabeziaren tipologia).
- Adingabeak asegabe dituen beharrak.¹²
- Arrisku-faktoreak eta familiaren babesleak.
- Adingabearen guraso eta legezko arduradunen ezaugarriak, arazoaren jabe ote diren eta aldatzeko motibaziorik ote duten jasotzeko.
- Familiaren egitura eta antolamendua.
- Berriro gertatzeko zer aukera dagoen balioestea eta arriskurik ote dagoen aztertzea.

Espresuki horrela eskatzen den kasuetan Pasaiko gizarte-zerbitzuek informazioa eskatuko dute, arrazoituta, idatzi bidez.

5.- Beharrezkoa bada, haurrari, edo tratu txar edo abandonuaren lekuko direnei eta familiarteko edo familiaren ezagun direnei ere egingo zaie elkarrizketa.

Susmoa eragin duen haurraren egoera ez ezik, familiaren etxebizitzan bizi diren gainerako anai-arreben egoera aztertzea da garrantzizkoa, bereziki, txikiena.

6.- Beharrezko informazioa jaso eta gero, adingabearen egoera larria ote den balioetsiko da. Balora tresna erabiliko da, babesgabeziako tipologiak eta larritasuna zehazteko.

7.- Gizarte Ekintza Sailaren ikerketa-txostena landuko da, laburpen-orriarekin¹³ batera. Aurreikusitako epeetan egingo da ikerketa, kasuari ezarritako lehentasun mailaren arabera. Ikerketa ez da bukatutzat emango, harik eta txostena egiten den arte.

8.- Ikerketa amaituta, beste elkarrizketa bat egingo da gurasoekin, emaitzen berri emateko, honako hauek kontuan hartuta:

¹²

Felix Lopezen haurren beharrak ikusi. Or.

¹³ Baloraren 68. orrialdea.

Jarduteko barne-protokoloa, haurrak arrisku egoeran edo babesgabezia egoeran daudenerako

- Ikerketa-prozesuaren laburpen arina.
- Ikerketaren ondorioen azalpena.
- Kasuaren orientazioari buruzko informazioa.

9.- Arrisku larriko kasua bada, egiten den txostena EZIARA helaraziko da.

10.- Kasua arrisku arinekoa edo arrisku ertainekoa delako ustea badago, txostena helaraziko da, a) Arrisku-egoeren baloraziorako udalaren programara, kasuaren ebaluazioa osa dadin; b) Familiaran esku hartzeko programetara (Esku-hartzearen balorazioa; gurasoen gaikuntza; laguntza espezifikoa adingabekoari; kasuaren jarraipena); edo c) Bigarren mailako prebentzioko programetara.

IKERKETARAKO EDO EBALUAZIORAKO PROTOKOLOA

1.- Egoeraren berri izan eta gero, gizarte-langileak kasua arriskukoa delako ustea badu, espedientea arriskuko egoerak baloratzeko udalaren programara bideratuko du, balorazioa egin dadin.

2.- Baloraziorako programa egiteko gizarte-langileak kasua jaso izanaren orria bete beharko du.

3.- Hala eta guztiz ere, gizarte-langileek bi balorazio egin beharko dituzte ariketa bakoitzeko.

4.- Gizarte-langileak edo balorazioaren ardura duen profesionalak elkarrekin egingo dute testuinguruan kokatzeko elkarrizketa, gerora, familiaren balorazioa egiteko. Elkarrizketan arlo hauek landuko dira:

- Ardura duten profesionalen aurkezpena (gizarte-langilea, baloraziorako programa, etab.)
- Balorazioaren prozesuari ekiteko arrazoiak.
- Horrelako prozesu batek zerk dakarren; zenbat elkarrizketa egingo diren; prozesuaren iraupena...
- Balorazioa bukatu ondoren zer gerta litekeen.

Testuinguruan kokatu eta gero, legezko arduradunek balorazioa onartzen dutela agertzen duten dokumentua sinatuko dute, ados baldin badaude; edo uko egiteko dokumentua, ados ez badaude.

5.- Ardura duen profesionalak Gizarte Ekintza Sailaren ikerketa- eta ebaluazio-txostena landuko du, laburpen-orriarekin batera.

Jarduteko barne-protokoloa, haurrak arrisku egoeran edo babesgabezia egoeran daudenerako

6.- Balorazioa bukatu eta gero, elkarrizketa egingo da guztien artean, zehazki, balorazioaren programako gizarte-laguntzaile eta legezko arduradun eta haurren artean (12 urtetik beherako haurrei bertaratzeko aukera emango zaie, eta 12 urtetik gorako haurrek ezinbestean bertaratu behar dute), eta emaitzen berri emango zaie. Honako hauek izango dira kontuan elkarrizketan:

- Balorazio-prozesuaren laburpen arina, gizarte-langileak egina.
- Balorazioaren ondorioen azalpena, gizarte-langileak egina, balorazioa berak egin duenean edota balorazioko programaren arduraduna bera denean.
- Kasuaren orientazioari buruzko informazioa, gizarte-langileak egina.

7.- Arrisku larriko kasua bada, egiten den txostena EZIARA helaraziko da.

8.- Kasua arrisku arinekoa edo arrisku ertainekoa delako ustea badago, txostena helaraziko da, a) Familian esku hartzeko programetara (Esku-hartzearen balorazioa; gurasoen gaikuntza; laguntza espezifikoa adingabekoari; kasuaren jarraipena); edo b) Bigarren mailako prebentzioko programetara.

SEXU-ABUSUAREN SUSMOA DAGOENERAKO IKERKETARAKO PROTOKOLOA

1.- Sexu-abusuko kasu guztiak edo adinerako desegokiak diren sexu-jokabide guztiak artatuko dira, informazio emailea eta jakinarazpena egiteko modua edozein izanda ere. ¹⁴Jakinarazpenari erantzuna emateko adingabekoen eta familiaren identifikazio-datuak behar dira eta/edo jakinarazpena zerk eragin duen egoeraren deskribapena.

2.- Adingabekoari eragindako sexu-abusua egiazkoa ote den zehaztuko da. Horretarako: Sexu-abusuaren ustezko adierazlerik ba ote dagoen aztertuko da, edo adierazleak sexu-abusuaren berriazkoak ote diren ikertuko da¹⁵.

3. Haurren babeserako espedientea abiaraziko da kasu guztietan (gizarte zerbitzuetan espedientea abiarazita edo abiarazi gabe duten familiak).

¹⁴

Jakinarazpena idatziz egiten ez den kasu guztietan, Pasaiako gizarte-zerbitzuek jakinarazpenerako orria beteko dute.

¹⁵ Haurren babesgabezia egoerarako jarduteko gidako edo GFaren berriazko protokoloaren 39. orrialdea

Jarduteko barne-protokoloa, haurrak arrisku egoeran edo babesgabezia egoeran daudenerako

4.- Familiari hitzordua emango zaio, eta:

- Jasotako informazioa alderatuko da.
- Udaleko gizarte-zerbitzuek zer prozedurari jarraituko dioten ezagutzera emango da.
- Seme edo alabari egindako sexu-abusua dela-eta, guraso edo legezko tutoreek nola babestuko duten balioetsiko da.
- Kasua epaitegira orientatu ote litekeen baloratuko da, EZIAN kontsulta egin eta gero, kasuarekin lotutako babesgabeziako egoerarik izan ezean.

5.- Adingabekoen ustezko abusuak direnerako, Foru Aldundiak duen jakinarazpenerako protokoloa bete behar da.

6.- Protokoloa EZIAko gizarte-langileari helaraziko zaio, ikerketa egin dezaten eta sexu-abusurik izan ote den egiazta dezaten.

ESKU HARTZEKO PROTOKOLOA

1.- Esku hartzeko prozesuari ekiteko, gizarte-langileak kasuaren plana hartzen du abiapuntutzat, bertan zehaztuta baitaude helburuak, segidak, baliabideak eta esku hartzeko denborak.

2.- Kasuaren koordinatzaile den gizarte-langileak kasuaren planaren aurkezpena egingo du haurren eta nerabeen babeserako batzordean, hark ontzat eman dezan eta kasua abiarazteko agindua eman dezan. Ezarritako irizpideen arabera, batzordeak erabakiko du kasuak zer hurrenkeratan abiarazi, itxarote-zerrenda dagoenean.

3.- Familiak parte hartuko duela agertzen duen hitzarmena sinatuta. Gizarte-langilea adingabekoen legezko arduradunekin bilduko da, eta kasuaren plana azaldu eta gero, familiak parte hartuko duela agertzen duen hitzarmena sinatuko du, horretarako egokitutako ereduari jarraiki.

4.- Gizarte-langileak esku hartzeko taldea izendatuko du, esku hartzeko tipologiaren arabera eta profesionalen ezaugarrien arabera. Izendatutako kabineteari kasuaren plana eta balorazioaren txostena (beharrezkotzat joz gero) helaraziko zaizkio, eta esku hartzeko aurrekontua eskatuko zaio.

Jarduteko barne-protokoloa, haurrak arrisku egoeran edo babes gabezia egoeran daudenerako

5.- Gizarte-langilea esku hartzeko taldearekin bilduko da, azken zertzeladak argitzeko eta familiarekin egingo den aurkezpenerako bilera zehazteko.

6.- Gizarte-langileak eta esku hartzeko taldeak aurkezpen-bilera egingo dute familiarekin, eta parte hartzeko hitzarmenean sinatutako esku-hartzearen helburuak zeintzuk diren gogoraraziko zaizkio. Halaber, saioetarako epe, ordutegi eta egunen berri emango zaie.

7.- Kasuaren koordinatzaile den gizarte-langileak asko jota sei hilean behin plana berraztertuko du, lau urte baino gehiagoko haurren kasuak direnean; eta asko jota lau hilabetean behin, lau urtetik beherako haurren kasuak direnean. Horretarako:

.- Bilakaeraren txostena eskatuko dio esku hartzeko taldeari (ereduzko txostenari jarraiki).

.- Taldearekin koordinazio-bilera egingo du, garapenaren txostena berraztertzeko.

.- Gizarte-langileak sareko bilerarako deia egingo du (esku-hartze taldea, kale-hezitzaileak, ikastetxeak, zerbitzu espezializatuak, etab.), adingabekoen egoeraren garapena berraztertze aldera.

- Gizarte-langilea familiarekin (legezko arduradunak eta adingabeak) bilduko da, esku-hartzearen bilakaerari buruzko iritzia jasotzeko.

Esku-hartze prozesuan adingabearen egoera babesgabeziako arrisku larriko egoera izatera edo babesgabetasun egoera izatera pasa bada, gizarte-langileak eskualdeko haurren taldeari bideratuko dio kasua, dagokion txostena eginda.

8.- Jasotako informazioa baliatuz, gizarte-langileak kasuaren plana berraztertuko du. Berraztertzean aztertu egingo du aldaketarik ote den baliabide edo zerbitzuetan, edo planaren hasieran edo esku-hartzearen bukaeran ezarritako beste arlo batzuetan.

.9.- Gizarte-langileak berraztertze txostena esku hartzeko taldeari helaraziko dio, kasuari buruzko zer erabaki hartu den jakitera emateko.

10.- Gizarte-langileak ikastetxe, profesional edo beste zerbitzu batzuei jakinaraziko die familiarekin esku hartzen ari direla.

11.- Gizarte-langileak eta esku hartzeko taldeak familiarekin bilera egingo dute, berraztertzearen berri emateko eta esku-hartzearekin jarraituko ote den edo esku-hartzeari amaiera emango ote zaion aztertzeko.

Jarduteko barne-protokoloa, haurrak arrisku egoeran edo babesgabezia egoeran daudenerako

13.- Jasotako informazio guztia aztertuta, gizarte-langileak erabakia hartuko du, kasuarekin bukatu, esku-hartzearekin jarraitu edo kasua Gipuzkoako Foru Aldundiaren haurren eta nerabeen eskualdeko taldera bideratuko ote duen.

14.- Esku-hartzea egiten ari den bitartean, familia beste udalerrri batera tokiz aldatzen bada, hasierako udalerriko gizarte-zerbitzuen ardura izango da esku-hartzea, harik eta kasuaren planaren hurrengo ikuskapena egiten den arte. Ikuskapena egin eta gero, hala badagokio, gizarte-langileak espedientea tokiz aldatutako udalerrira helaraziko du.

Jarduteko barne-protokoloa, haurrak arrisku egoeran edo babesgabezia egoeran daudenerako

PASAIKO UDALEKO PROFESIONALENTZAKO BARRUKO JARDUERA-PROTOKOLOA, HAURRAK ARRISKUAN EDO BABES GABEZIA EGOERAN DAUDELAKO SUSMOA DAGOENERAKO

1) PROZEDURA:

Administrazioak eta bertan lanean diharduten profesionalak haurrak eta nerabeak babes ditzaten ezinbesteko baldintza da norbaitek arrisku egoerarik eta/edo babesgabezia egoerarik ba ote dagoen aztertzea eta detektatzea, eta, segidan, eskumena duen administrazioari jakinaraztea.

3/2005 Legean, otsailaren 18koan, Haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babestekoa denean, 5. artikuluan honela jasota dago: "*Bai agintariek eta zerbitzu publikoek bai herritarrek, batez ere lanbidea edo betetzen duten eginkizuna tarteko haur edo nerabe bat arrisku edo babesgabezia egoera batean egon daitekeela ikusten dutenek, haur edo nerabeari laguntza berehala eskaintzeko betebeharra dute, eta, beren eskumenean badago, jarduteko, edo bestela, eskumena duten agintariei edo haien agente gertukoenei jakinarazteko; orobat, adingabearen legezko ordezkariari jakinarazi behar dizkiete egitateak, edo, beharrezkoa bada, ministerio fiskalari ere bai*".

Lege bereko 51. artikuluan zehazten dira jakinarazi beharko liratekeen arrisku-egoerak zeintzuk diren: "*Arrisku-egoerak dira haurraren edo nerabearen garapen pertsonal edo sozialari kalte egin diezaioketen egoerak, babesgabeziatzat jo ezin daitezkeenak eta, hortaz, legeak agindutako tutoretza ezartzea eskatzen ez dutenak. Arrisku-egoera agertuko da, gizartearen, familiaren edo adingabearen beraren gorabeheren ondorioz, adingabearen garapena eta ongizatea mugatuta edo kaltetuta gertatzen badira, eta gurasoek, tutoreek edo zaintzaileek ez badituzte beren gain hartzen haurraren edo nerabearen garapen egokia bermatu ahal izateko erantzukizunak, edo erantzukizun horiek osorik beren gain ez hartzea gerta badaiteke. Betiere, egoera hori babesgabetasun- egoera bilakatzeko bezain larria ez bada edo haurra edo nerabea familia-gunetik bereizteko adinakoa*".

Horrenbestez, eta labur esanda, adingabekoen babesean, eta Pasaiaiko haur eta nerabeen eskubideen bermean, guztien oinarrizko beharrak aseta izan daitezzen, gurasoek ezina agertzen dutenean edota egoki jokatzen ez dutenean, eta administrazioak esku hartu beharra izaten duenean, baldintza hauek bete behar dira:

- Herritarrak nahiz profesionalak administrazio eskudunari (Gizarte Zerbitzuak, Udaltzaingoa, Ertzaintza...) jakinaraziko dio adingabekoa arrisku edo babesgabezia

Jarduteko barne-protokoloa, haurrak arrisku egoeran edo babesgabezia egoeran daudenerako

egoeran dagoela.

- Jarraian aipatzen diren egoera hauen guztien jakinarazpena egingo da: a) adingabeko bat arrisku-egoeran dagoelako susmoa dago, b) gurasoek adingabeko bati tratu txarra eragiten diotelako susmoa dago, eta c) adingabeko batek adierazten du gurasoek edo beste hirugarren batzuek tratu txarra eragiten diotela, eta guraso edo legezko arduradunek ez dutela babesten.
- Kasua detektatu eta eskumena duen agintariari jakinarazi ondoren, adingabekoaren guraso edo legezko arduradunei ohartaraziko zaie.

3) JARDUERA-PROTOKOLOA

1. Arrisku-egoera edo babesgabezia-egoeran egon litekeen haurraren detekzioa egiten duen profesionalak horren berri emango dio saileko arduradunari, eta jarduten hasiko da, Gizarte Ekintza Sailarekin harremanetan jarrita, ondorengoak zehazteko:

a) Gizarte-zerbitzuen jarduketa beharrezkoa ote den zehaztea eta, beraz, jakinarazi behar ote den zehaztea.

b) Bi sailetako profesionalen arteko elkarlana bultzatzea, jarduteko estrategia bateratua bultzatzeko.

c) Zalantzak argitzea, eta etorkizunean eman beharreko urratsen berri ematea, bai adingabekoarekin, bai familiarekin.

2. Ustezko arrisku-egoera edo babesgabezia-egoera detektatu duen profesionalaren saileko arduradun teknikoak idatziz egingo dio jakinarazpena Gizarte Ekintza Sailari, eta horretarako, 2. eranskineko jakinarazpen-protokoloa erabiliko du.

3. Adingabekoaren familiari jakinarazi egingo zaio gizarte-zerbitzuei zer jakinarazpen egin zaion, eta argi azalduko zaio zer arrazoik eragin duen berori bideratzea. Atal honi dagokionez, hainbat arlo argitu beharrekoak dira:

a) Nork eta nola jakinaraziko dion familiari jakinarazpen bat egin dela.

b) Informazioa emateak adingabekoarengan zer arrisku izan dezakeen, eta informazioa emateko

Jarduteko barne-protokoloa, haurrak arrisku egoeran edo babesgabezia egoeran daudenerako

Gizarte Ekintza Saileko profesionalen batek esku hartu behar ote duen.

c) Nori jakinarazi behar zaion (gurasoetako bati; bi gurasoei; banaketa edo dibortzioa denean, nola jokatu...)

Familiari argitu behar zaio prozedura baliagarria dela, bai familiari, bai adingabe koari laguntzeko, eta, halaber, Gizarte Ekintza Sailak zer baliabide dituen.

Familiari egiten zaion jakinarazpena Gizarte Ekintza Saileko profesionalekin batera egiten bada, ardura duen gizarte-langileak familiari azalduko dio une horretatik aurrera zein izango den abiaraziko den prozedura zehatza.

Jarduteko barne-protokoloa, haurrak arrisku egoeran edo babesgabezia egoeran daudenerako

PASAIKO UDALAREN GIZARTE EKINTZA SAILEKO GIZARTE-LANGILEEN ETA KALE-HEZIKETARAKO PROGRAMAREN ARTEKO ELKARLANERAKO PROTOKOLOA

Haurren arrisku eta babesgabezia egoeretan oinarrizko gizarte zerbitzuek esku hartzen dute. Helburua nabarmenki prebentzioa da. Pasaiaiko Udalaren Gizarte Ekintza Saileko profesionalen lana hobetze aldera, bereziki esku-hartzean, arrisku eta babesgabezia egoeretako prozesuetan prozedurarik nabarmenenak antolatu eta sistematizatu nahi dira.

Gizarte Ekintza Sailaren barruan Kale-heziketaren Programa garrantzi handikoa da prozesuaren hainbat arlotan, bai detekzio goiztiarra egiteko, bai prebentzioa egiteko. Horiek horrela, behar-beharrezkoa da saileko profesionalen eta programako profesionalen betebeharrak eta eginkizunak zehaztea eta arautzea.

Kasuaren koordinatzailea ardatza da arrisku eta/edo babesgabezia egoeretan dauden adingabekoen eta familien oinarrizko gizarte-zerbitzuetako esku-hartzean. Pasaiaiko Udalean oinarrizko gizarte-langileen zereginak dira, bai haurren tratua txarra eta babesgabezia prebenitzeko lanak, bai kasuaren koordinatzaile izateko lanak.

Lehenengo lanari dagokionez, gizarte-langileek eginbehar hauek betetzen dituzte:

- Babesgabezia-egoeran egon daitezkeen haurren egoeren jakinarazpenak jasotzen dituzte.
- Haurren eta familiekin harreman zuzena duten Pasaiaiko udalerriko beste eragile batzuekin elkarlanean aritzen dira –eskola, kale-heziketarako programa, aisialdirako elkarteak–.
- Pasaiaiko udalerrian arrisku eta/edo babesgabezia egoeran izan litezkeen adingabekoen eta familien erregistroa eguneratuta izaten dute.

Kasuaren koordinatzailearen zeregin nagusiak hauek dira, besteak beste:

- Udalaren eskumeneko babesgabeziako kasuen ikerketa eta ebaluazioa egitea, beharrezko diren laguntzak jasota; eta taldeko kideekin batera, beharrezkoak diren erabakiak hartzea, dagozkion faseetan eta epeetan.

- Udalaren eskumenekoak diren kasuen planak diseinatzea.
- Udalaren eskumenekoak diren kasuen planak zuzentzea, eta planetan elkarlanean aritzea. Emaitzak ebaluatzea, horretarako ezarritako epeetan, eta dagozkion erabakiak hartzea.

Protokolorako proposatzen diren helburuak hauek dira:

- Pasaian bizi direnen adingabekoen arrisku eta/edo babes gabezia egoeren detekzioa eta jakinarazpena hobetzea.
- Kasuen koordinatzaile lanetako gizarte-langileen eta kale-heziketarako programako profesionalen arteko elkarlana hobetzea, eta elkartzeko tokiak zehaztea, informazioa elkarri trukatzearren; era berean, komunikaziorako modu berriak sortzea.
- Detekzioaren eta jakinarazpenaren prozesuan kale-heziketarako programa babestea, laguntza eskainiz eta aholkuak emanez, nola lege arloan, hala arlo teknikoan eta prozeduren arloan –zer informazio eman adingabekoei, familiei; nola eman; noiz eman...–.
- Sailean abian jartzen diren arrisku edo babes gabezia egoerako kasuen esku-hartzeetan kale-heziketaren programako profesionalek kontzientzia gehiago hartzeko ahaleginak egitea, artatzen ari diren adingabekoekin eta familiekin egiten ari den lanean zuzeneko eta garrantzi handiko parte-hartzaileak baitira.
- Lan-prozesuari buruzko eta kale-heziketarako programan artatzen diren adingabekoen egoerari buruzko ezagutza hurbilagoa eta zehatzagoa ematea profesionalei. Era berean, informazio zehatzagoa ematea Gizarte Ekintza Saila artatzen ari den familiei eta adingabekoei buruz.

Metodologia

- Kale-hezitzaileen eta barruti bakoitzeko Gizarte Ekintza Saileko gizarte-langilearen arteko bilerak hileroko antolatzea, eta horretarako, egutegia egitea.
- Hileroko lana izango da hilaren lehenengo bost egunen buruan kale-heziketarako programan artatu direnen zerrenda aurkeztea dagokion gizarte-langileari. Zerrendan esku hartzeko 1. taldeko adingabekoak agertuko dira.
- Sailean artxibo bat sortzea, kale-heziketarako programan artatu diren arrisku egoerako adingabekoei buruzko dokumentuak biltzeko.

Jarduteko barruko eskuliburua, haurrak arrisku eta/edo babesgabezia egoeretan daudenerako

- 1. taldean artatutako adingabekoen banakako heziketa-proiektua lantzea, eta barruti bakoitzeko gizarte-langileari helaraztea. Adingabekoarekin esku hartzen hasi, eta bi hilabetera aurkeztuko da lehenengo zatia. Segidan, sei hilabetetik behin helaraziko zaizkie planaren berrikusteak –helburuen ebaluazioa eta moldaketa–.
- Babesgabezia-egoeran egon litezkeen haurren jakinarazpena¹⁶, Gizarte Ekintza Sailak ezarritako prozeduraren arabera.
- Ikerketa eta/edo ebaluazioa egiten den kasuetan profesional arduradunari adingabekoaren eta familiaren daturik garrantzitsuenen berri ematea.
- Kasuari dagokion gizarte-langileari laguntza ematea egokitzat jotzen diren bileretan edo elkarrizketetan parte hartzeko, nola ikerketaren eta ebaluazioaren prozesuen barruan, hala ikastetxeekin elkarlanean edo sareko bileretan...
- Gizarte Ekintza Sailean parte hartzearen hitzarmena sinatuko da, eta bertan agertuko dira kale-heziketarako programan parte hartzekoak diren adingabekoen guraso eta lege-ordezkariez gain, dagokion gizarte-langilea eta programako ordezkari bat.

¹⁶ Horretarako, Pasaiko Gizarte Ekintza Sailean jakinarazpenerako prozedura garatuko da, eta kale-heziketako programaren esku jarriko dira hiru hilabeteren buruan protokoloak, ondoren bete daitezten.